

"Internet deabrua bezala saldu dute eta ez da horrela, ezinbesteko tresna da"

Ramon Barlam
Aditua eta aholkularia > 06



G2a

Danbaka: lehen kontzertuak emandakoak > 23

KIROLA
Ehun gaztetxo inguru batu ziren atzoko errugbi topaketan > 15

ELKARRIZKETA
Antxon Artza kayakista nafarrari elkarrizketa > 21

KULTURA
The Commitments talde ezaguna izan zen zapatuan Elgetan > 24

LANA > KRISIA

Lan murrizketa Fagorren

Fagor Etxetresnak enpresan 150 lanpostu murriztuko dituzte > 05

ELGETA > JAIK

Giro ederra domekan Elgetan

Ostatu jatetxeak irabazi zuen pintxo lehiaketa; jende asko batu zen > 31

ANTZUOLA > ITURRIK

Herriko iturrien altxorra

Udalaren ekimenez, Antzuolako hainbat iturri auzolaneko konpondu dituzte aurten. Jose Mari Iturbe herriko iturrien bila ibili da aspaldian eta iturrien gaineko ikusentzunezkoa eskainiko du bihar, martitzena, Olanan etxean. 58 argazki lokalizatu ditu Iturbek. > 09

LANA > HILDAKOA LAN ISTRIPUAN

Oñatiko langile bat hil da lan isticripuan, Garay enpresan

EZBEHARRA Zapatu goizean gertatu zen ezbeharra Oñatin; makina batek harrapatu zuen langilea

HILETAK Gaur izango da Mikel Zelaiaren aldeko hileta elizkizuna; sindikatuek protesta egingo dute eguerdian

BI HILDAKO Joan den urteko martxoan beste langile bat hil zen Hijos de Juan de Garay lantegian > 05



DENDAK PILOTALEKUAN Bergarako dendarien elkarteak hainbat stand jarri zituen zapatuan Udal Pilotalekuan. Jende asko ibili zen. JOSETXO ARANTZABAL

Saltzaileak nahiz erosleak, biak gustura Bedelkarren azokarekin

Salmentak ez ziren ikaragarriak izan baina Bedelkarren helburua bete zuen azokak: herri giroa jartzea eta dendetako produktuak jendeari erakustea. Erosleak beste aldetik, ondo ikusi zuten Bedelkarrek azoka jartzeko ideia eta pozik ibili ziren.

Umeen puzgarriek eta pailazoen ere arrakasta izan zuten eta Musika Eskolako hainbat musikari herriko kaleak giro-tzen ibili ziren goizean zein arratsaldean. Bergarako Orfeoak ere emanaldia egin zuten Udal Pilotalekuan. > 04

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-05
- Elkarrizketa > 06
- Iritzia > 07-08
- Herriak > 09-14
- Kirola > 15-22
- Kultura > 23-27
- Sailkatuak > 28
- Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
- Berri-zakua > 30-31
- Azkena > 32



MONDRAK KALE Arrasatearrek 2-3 galdu zuen etxean, Pasajesen aurka. I.A.

FUTBOLA > PREFERENTEA

Jardunaldi txarra atzokoa ibarreko futbol taldeendako

Preferente mailako ibarreko futbol taldeek ez zuten jardunaldi ona izan atzokoa. Hirurek etxean jokatu zuten baina zaleen laguntza ez zen nahikoa izan hiru puntuak eskuratzeko; Aloñak bina berdindu zuen Azkoagainen Donostiako Berio taldearen aurka eta Mondrak 2-3 galdu zuen Mojategin Pasajesen aurka. Mojategiko ikus-

leen artean Juan Luis Larrea Gipuzkoako federazioko presidentea egon zen.

UDARI dagokionez, Igor Gordobilen taldea etxetik kanpo dabil ondoen aurten. Atzo ere ez ziren gauza izan aretxabaletarrak Ondarroako Aurrera taldea menderatzeko. Bana amaitu zen Ibarrrako partidua. > 16

ASTELEHENKO Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Urriko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

UMEENTZAKO LIBURUAK



Bidali AG LIBURUAK 5533 zkra

BRUESAREN PARTIDUETARAKO SARRERAK



BRUESA GBC-DKV Joventut
BRUESA GBC-CAI Zaragoza

Bidali AG BRUESADKV 5533 zkra
Bidali AG BRUESACAI 5533 zkra

ZIRA



Bidali AG ZIRA 5533zkra

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA)



Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak





Aitor Olea Bergarako San Pedro parrokiako organo-jotzaile berria Iñigo Mitxelena apaizarekin, egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > IBARREKO ORGANISTAK

Musika zaletasuna bai baina organo jotzaile gutxi

OLEA Aitor Olea durangarra da Bergarako San Pedro parrokiako organo-jotzaile titular berria

ORGANOAK Debarroko organorik onena Bergaran dago eta Oñatikoak ere ez dira txarrak

IKASLEAK Bergarako Musika Eskolako ikasleek San Pedroko organoa jotzen ikasteko aukera izango dute

PROFANOA Kristo aurreko III. mendean sortu zuten organoa eta X. mendean sartu zen elizan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Gaur egun ez ei da erraza organo-jotzailea aurkitzea eta Bergarako San Pedro parrokian pozik daude, organista titular berria dutelako: Aitor Olea durangarra. "Apaiz asko zeuden garai hartan, apaiz bat izaten zen parrokiako organo-jotzailea, baina apaizak gutxitzen joan diren heinean organista titularrak ere bai", dio Juan Kruz Mendizabal apaizak.

Aitor Olea Lekeitioko organista izan da azken 20 urtetan. "Bergaratik deitu zidatenean baietz esan nuen. San Pedroko organoa (1889koa) Stoltz etxeko jatorrizko eran dagoen Europako organurik handiena da eta niretako plazerra da hau jotzea", adierazi du. "Organo erromantikoa da. 3.000 tutu eta 39 joko ditu

eta joko bakoitzak orkestaren koloreak oso ondo antzematean datza bere erromantikotasuna", zehaztu du.

OÑATIKOAK ERE, ONAK

Aitor Olearen iritziz Bergarako San Pedro parrokiako organo hori da Debarroko onena. "Oñatiko parrokiakoa Akilino Amezua azpeitiarrak egin zuen. Stoltzen ikaslea izan zen hura eta organo ona izan arren, ez du maisuarenak duen besteko mailarik. Santa Anako aretoan eta moja benediktinarren elizan daudenak ere txukunak dira. Beste herrietakoak maila baxuagoa dute, adibidez", dio Oleak.

Oñatin, gainera, organo titularrik ez baina lau organo-jotzaile dituzte Mikel Goiangeruaren parrokiak. "Hiletetan Jose M^a

Martinezek jotzen du. Domeketan Iñaxio Ibarrodok, korua zuzentzen ez badu, eta jai egun handietan Esteban Irustak. Bestalde, Felix Kortabariak ere jotzen du hainbat elizkizunetan",

azaldu du Sabino Zuazabeitia Oñatiko parroko ohiak. Arrasateko organista David Artzamen-di da eta Bergaran bi dituzte orain: Aitor Olea San Pedro parrokian eta Miguel Gonzalez

Bastida Santa Marinakoan. Aretxabaletan ere ez dute saltzeko organoa. 100 urte bete zituen 2005ean eta konpondu egin zuten urte horretan.

MUSIKA ESKOLAREKIN BATERA

Aitor Oleak 39 urte ditu baina beldur da organo-jotzaileen azken belaunaldiko kide ez ote den izango. Horregatik, ondo iruditu zaio Bergaran izan duten ideia: Musika Eskolako ikasleek organoa jotzen ikastea. "Nolabaiteko oinarri bat izan behar da organoa jotzeko eta horregatik pianoko ikasleei egingo diegu eskaintza", dio Marije Ugaldek, Musika Eskolako zuzendariak. Iñigo Mitxelena San Pedroko parrokoak ere "organoari beldurra kendu" behar zaiola uste du eta ideia gauzatzen lagunduko du.

Euskal konposatzaile askok egin dituzte piezak organoarekin jotzeko

Organoa instrumentu profanoa da. Mesopotamian sortu zuten Kristo aurreko III. mendean. X. mendean sartu zuten elizetan, baina inongo rolik gabe. Gaur egun, ordea, elizarekin lotzen da zuzenean organoa. "Egia da gehienak elizetan daudela baina ezin dira edonora mugitu beste edozein instrumentu bezala, oso handiak dira gehienak", dio Aitor Oleak. "Musikari buruz, organoekin ez da eliza-musika bakarrik jotzen. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Miramonen duen egoitzan eta Euskaldunan ere badaude organoak, eta horietan gutxitan jotzen da eliza-musika. Euskal konposatzaile askok ere, Jesus Guridi, Aita Donostia edo Tomas Garbizuk, adibidez, organoarekin jotzeko pieza asko egin dituzte", jarraitu du.

BERGARA > BEDELKARREN AZOKA

Bigarren azoka bat egiteko moduan

Erosleak gustura ibili dira azokan eta Bergarako saltzaileak ere pozik helburuak bete direlako

Egun gehiago izango dituen beste azoka bat egitea aztertuko du Bedelkar elkarteak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Erosleak eta saltzaileak gustura gelditu dira Bedelkarrek, Bergarako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarte, zapatuan Bergarako frontoian egindako azokarekin. Saltzaileak pozik gelditu ziren jendea ibili zelako, eta erosleak ere gustura Bedelkarrek azoka egiteko ideia izan duelako.

HELBURUA, BETETA

Salmentak ez ziren ikaragarriak izan, baina Bedelkarren helburua herrian giroa jarri eta herriko denda eta produktuak herritarren eskura jartzea zen, ez egun guztian gelditu barik saltzen ari zea. "Produktu jakin bat erosi gura zutenek erosi zuten, baina orokorrean produktuak ikustera etorri zen jendea eta guk ere hori nahi genuen, jendeak ikustea dendetan daukaguna", dio

Edith Eguren. "Eskuarteetan ibili zituzten jantziak, adibidez, eta dendatik pasako zirela ere batek baino gehiagok esan ziguten", jarraitu du.

Igarza mertzeriako Maria Eugenia Igartza ere gustura zegoen azokarekin goizean goizetik. "Jende asko dabil, lehen orduan ere etorri dira batzuk, eta pozik gaude", adierazi zuen. "Bergaran beti izan ditugu komertzio onak, kalitatezko produktuak eta horiek erakutsi nahi izan dizkiegu herritarrei", jarraitu zuen.

BI EGUNETAKO AZOKA

Bedelkarrek antolatutako duen lehen azoka izan da hau. Zapatuan egin zuten Udal Pilotalekuan baina hurrengo bi egunetako izan daiteke. "Jende askok galdetu zigun ea egun bakarreko azoka zen, ea domekan jarraipena izan-



J. ARANTZABAL

go zuen edo ez. Momentu baten pentsatu genuen domeka goizean ere egitea, baina ezetz erabaki genuen. Lehenengo izanik egun bakarreko egitea pentsatu genuen, horrela iragarri genien herritarrei eta erabaki genuen domekako ideia hurrengorako uztea. Datozen egunetan bilera egingo dugu Bedelkarren

azoka baloratzeko eta bigarren bat egitea ere eztabaidatuko dugu, ziurrenez. Aurtengoa ikusita, hurrengo bi egunetako izango da, agian", dio Eguren. Hauxe da erosleen artean zozketatu zuten telebistaren zenbaki saritua: 4505. Zenbaki hori duena Gisasola burdindegira joan dadila saria jasotzera.

OÑATIKO BIDEGORRIA

Zein zati egiten hasi aztertuko dute orain

Kontzientziarioak bidegorriak besteko garrantzia duela uste du Txirrinkak

O.E. > OÑATI

Txirrinka taldeak aztertu du Oñatiko Udalak egindako bidegorriaren behin-behineko proposamena eta traza-tuarekin gustura dago. "Puntu batzuk oraindik ez daude erabat garbi. Adibidez, proposamenak jasotzen du Olara eta San Lorentzora joateko bidegorria errepidetik egitea. Diputazioarena da errepidea eta oraindik ez dakigu Aldundiak zer dioen honi buruz. Baina trazatuarekin gustura gaude, bai", dio Txirrinka taldeko Aitor Ugaldek. Txirrinkako kideek egubakoitzean egin zuten bilera.

Orain trazatuaren lehen-tasunak aztertuko dituzte Txirrinkak eta Udalak. "Gure iritziz San Lorentzo eta Otadui zuhaitziaren arteko zatia da egin behar den lehena, herria aldenik alde gurutzatzen duena. Aste honetan dugu bilera Udaleko ordezkariarekin lehen-tasunak zehazteko", diosku Ugaldek.

KONTZIENTZIAZIOA

Bidegorriari besteko garrantzia ematen dio Txirrinkak kontzientziarioari eta horretan oraindik lan handia dagoela egiteko uste du Ugaldek. "Batetik bizikleta erabiltzera ohitu behar gara bai, baina alde batetik bestera mugitzeko ohitura da aldatu behar dena. Autoaren nagusitasuna alde batera utzi eta bestelako garraioak erabiltzeko ohitura hartu behar dugu guztiok, garraio publikoa barne", dio. "Horretarako lan handia egin behar da kontzientziario mailan", jarraitu du. Txirrinka taldeak bizikleta martxa egiten jarraituko du hileko hirugarren egubakoitzetan.

Edith Eguren > Iratxo mertzeriako

"Giroa jartzea eta produktuak erakustea lortu dugu azokan"

O.E. > BERGARA

Iratxo mertzeria duela urtebete zabaldu zuten Edith eta Nagore Eguren ahizpek. Azokan izan ziren zapatuan.

Zer moduz joan da azoka?

Oso ondo. Jende asko animatu da eta mugimendu handia egon da, arratsaldean batez ere. Puzgarriek eta pailazok ere arrakasta izan dute.

Asko saldu duzue?

Hainbat dendariekin egon naiz hitz egiten eta denak esan dute asko saldu ez duten arren gustura zeudela azokak izandako harrerarekin. Ezinezkoa da horrelako azoka batera dendako produktu guztietako taila eta modelo denak eramatea eta hasieratik genekien asko ez genuela salduko. Baina helburua ere ez zen saltzea, jendeari produktuak erakustea baizik.

Zein da balantzea?

Positiboa. Lortu dugu giroa jartzea eta jendeari gure dendak erakustea. Jendeak ondo erantzun du eta pozik gaude.

Jendeak ohitura du oraindik erosketak herritik kanpo egiteko?

Bai, zapatu arratsaldetan ez da inor egoten. Herrian ez dagoela ezer eta kanpora joaten dira herritar asko, zinemara, adibidez, eta erosketak ere han egiten dituzte.

Nabaritu duzue krisia?

Jendeak ez du edozein egunetan erosten, lehen bezala, eguraldiaren arabera datoz dendara.



Edith eguren.

J. A.

ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA

URRIAK 25 LARUNBATA
ESPALOA KAFE ANTZOKIA
ELGETA 22.00

OSTIADA OI!
NEVER SURRENDER
ENBOSKADA
HELL BEER BOYS

SARRERA: BAZKIDEAK 3€
BESTEAK 5€

OÑATI > HILDAKO BAT LAN ISTRIPUAN

Oñatiko langile bat hilda, zapatuan Garay enpresan izandako lan istripuan

Makina batek langilea harrapatu zuen goizean eta Gurutzetako Ospitalean hil zen

GOIENKARIA > OÑATI

Oñatiko langile bat hil zen zapatuan, Hijos de Juan de Garay enpresan izandako lan istripu baten ondorioz. Ezbeharrak zapatu goizean, 11:00ak aldera gertatu zen Oñatiko Garay enpresak Ota-
dui Zuhazti kalean duen lantegian. Antza denez, makina batek langilea harrapatu zuen, larriki zaurituz. Lankideek eta suhiltzail-
leek hartu zuten parte erreskate lanetan eta zauritua helikopteroz eramane zuten Bilboko Gurutzeta-



Irudian, Oñatiko Juan de Garay enpresa.

ARTXIBOA

ko Ospitalera, Barakaldora. Hala ere, osasun zerbitzuek ezin izan zuten langilearen heriotza saihestu. Hildakoa, Mikel Zelaia Yarza, oso ezaguna zen Oñatin eta haren

heriotzaren berri zabaldu bezain laster, mina eta harridura nagusi ziren Oñatiko kaleetan. Joan den udan, uztailaren bukaeran, ezkondu zen Mikel Zelaia *Pintxe*. Gaur,

astelehena, haren aldeko hileta elizkizuna izango da San Migel parrokian, 19:00etan.

ELKARRETARATZEA GAUR

Garay lantegia geratuta egon da zapatuko istripua gertatu zenetik eta gaur astelehenerako dolu eguna deitu dute. Era berean, enpresa batzordea gaur elkartuko da bihar greba egiten duten erabakitzeke. Enpresaren aurrean elkarretaratzea egingo dute gaur, eguerdian, eta ondoren Oñatiko plazaraino joango dira. Protestarekin bat egiteko deitu dute.

BI HILDAKO EPE LABURREAN

Urte eta erdiko epean Hijos de Juan de Garay enpresan bi langile hil dira lan istripuan. Joan den urteko martxoaren 21ean 42 urteko gizon bat hil zen, hura ere oñatiarra, bobina batek harrapatuta.

> LANA

Plantila murrizketa Fagor Etxetresnak lantegian

Fagor Etxetresnak enpresak egubakoitzean jakitera eman zuenez, Euskal Herrian dituzten zortzi lantegietan 150 langileren murrizketa egingo dute. Enpresaren prentsa oharrean jasotzen denez, kaltetutako langileak Mondragon Taldeko beste enpresatan kokatuko dituzte edo aurre-erretiroa hartuko dute. Aipatutako lan taldearen murrizketa urte amaiera bitartean egingo dute, gutxika-gutxika. Esan bezala, Fagor Etxetresnak-ek zortzi lantegi ditu Euskal Herrian eta horietatik lau Arrasaten kokatzen dira: hozkailuak, garbigailuak, termoak, ontzi garbigailua, egosketa sistemak eta galdarak egiten dituzte bertan. Beste lau lantegiak Eskoriatza (tresneria), Bergara (berogailuak), Oñati (sukaldeko altzariak) eta Basaurikoak (galdarak eta termoak) dira.



JOSETXO ARANTZABAL

Herri galdeketa aldeko sinadurak

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak proposatutako herri galdeketa aldeko sinadura bilketa egin dute aste bukaeran Bergaran, Oñatin, Antzuolan eta Elgetan. EAJK, EAK, Aralarrek eta Ezker Batuak bultzatutako ekimena izan da; datozen egunotan firma bilketarekin jarraituko dute. Hurrengo zapatua, urriaren 25a izan behar zuen aipatutako herri galdeketa egiteko eguna eta Legebiltzarrean kontsulta babestu zuten alderdiek egun horretan Legutiora joateko deia egin dute.

ARRASATE > AITA MENNIKO LANGILEEN PROTESTA

Lan baldintzak hobetzeko protestaldia egin zuten Aita Menniko Ospitaleko langileek

Urte osoa daramate langileek zuzendaritzarekin negoziazioetan

E.M. > ARRASATE

ELAren deiarri erantzunez, Aita Menni ospitaleko 30 bat langileek protesta ekitaldia egin zuten egubakoitzean Arrasaten. Urte osoa daramate lan baldintzak hobetzeko ahaleginetan.

Besteak beste zera eskatzen dute Aita Menniko langileek: soldata igoera (KPIa + %1,25 eta igoera lineal bat, kategoria desberdinen artean dauden gehiegizko ezberdintasunak gutxitzen joateko); urteko lanaldia jaistea; eta jai egunetako eta gaueko plusen igoera. Aita Menniko enpresa batzordeko kideen hitzetan, "behin eta berriz, jaitxi ditugu



Argazkian, egubakoitzeko elkarretaratze irudi bat.

I.A.

gure eskaerak. Baina, ekainetik aurrera ez dago zuzendaritzaren aldetik proposamen berririk mahai gainean. Eta Aita Menniko arduradunek egiten duten proposamena benetan urruti dago

langileen eskaeretatik. Sektore hau ez dago krisian. Gainera, ospitaleko plaza gehienak hitzartutakoak dira, osasun sail publikoak eta Foru Aldundiak ordaintzen dituela zati handi batean".



Embalan**3**
Enbalaje Sistemak

Tel.: 943 76 99 72 Faxa: 943 76 41 85
San Lorentzo Industrialdea, Amillaga 28
20570 Bergara (Gipuzkoa)

Ramon Barlam kataluniarra Interneten aditua da. Institutuko irakaslea izateaz gain, hezkuntza-
ren gaineko Lacenet proiektu telekolaboratiboaren arduraduna da. Gaur, astelehena, Aretxabaletan izango da, Kurtzebarri ikastetxeko Batera guraso elkar-
teak gonbidatuta. Internet eta bideojokoen aurrean nola jokatu behar duten azalduko die gurasoei eta irakasleei.

Ramon Barlam > Interneten aditua eta aholkularia

"Internet deabrua bezala saldu dute eta ez da horrela, ezinbesteko tresna da"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Arkupe kultura etxean izango da gaur Ramon Barlam, 18:15ean. Interneten gainean gurasoek eta irakasleek dituzten iritziei eta zalantzei erantzungo die. Nerabeen egunerokotasunean ordenagailua beharrezko tresna dela dio aditu katalanak.

Nerabeek behar bezala erabiltzen dute ordenagailua?

Nerabeek eta helduek ordenagailua erabiltzeko modu ezberdina dute. Askotan helduek iritzi hori daukagu aurreiritziei kasu egiten diegulako eta ordenagailua erabiltzen duten gazteen ezagutza ez ditugulako ezagutzen. Helduok askotan nerabeak epaitzen ditugu zahartuta dauden ereduak kontuan hartzen ditugulako. Gaur egungo nerabeak modu ezberdinean hazten dira. Egunerokotasunean ezinbestekoa den tresna bezala ikusten dute ordenagailua.

Zer diozu bideojokoetaz?

Irakurmenaren interesa eta hizkuntzaren erabilera murrizten dutela diote batzuek. Telebistaren erabilera mugatzen diegun moduan, bideojokoekin ere berdina jokatu behar dugu. Esaterako, ez dut ulertzen zergatik eskoletan udarako irakurketa eta negurako jokoak aholkatzen dituzten eta ez duten berdina egiten bideojokoekin.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar askotan, gurasoek seme-alabekin egoteko denbora gutxi dutenean, bideojokoak hedatu egin direla telebistaren kalterako. Bideojokoak askotan nerabeen txupetea da eta hori saihestu behar da. Okerrera da guraso batzuek ez dakitela seme-alabek zertara jokatzen dute. Hori kontrolatu behar dute. Bideojoko gehienak onak dira hezteko.

Nola ikusten duzu Internet?

Nerabeak jaio eta hazi dira Internetekin. Egokia den edo ez zehazterakoan, hedabideek min handia egin dute, erabili duten sensazionalismoagatik. Ondorioz, helduek mesfidantzaz ikusten dute guztia. Argi dago Interneten delituzko ekintza daudela eta egingo direla. Baina, deabrua bezala saldu dute eta ez da horrela.

Hezkuntza mailan, argira sekula irten ez diren esperientzia interesgarriak daude. Baina, ematen du portada ziberpederastek eta ziberterroristek bakarrik merezi dutela. Hedabideek, horren harira, hausnarketa egin



Irudian, Ramon Barlam Interneten aditua eta aholkularia.

JORDI ADELL

beharko lukete. Bestalde, blogosfera jarraitzean dago gakoa. Galdera da gure nerabeen Interneten ezagutzen dugun edo ez. Guraso asko ez dakite seme-alabek Interneten argitaratzen dutela beraiei kontatzen ez dietena. Berehala konpondu behar dugu arazo hori.

Zer gauza on eskaintzen die nerabeei?

Internet jada ez da ona, beharrezkoa da nerabeendako. Eta ez horiendako bakarrik. Ezagutzaren gizartearen oinarrietako bat da; ezagutzarako sarbidea eta komunikaziorako tresna indartsua da. Nerabeengan ez du jada eraginik, kode genetikoaren parte da.

Horren harira, zergatik ezkutatzen dira helduengandik erabiltzerakoan?

Arrazoi asko daude: erosotasunagatik, beldurragatik, utzi-keriagatik edo ezjakintasuna-

BIDEOJOKOAK

"Telebistaren erabilera mugatzen dugun moduan, bideojokoekin ere berdina jokatu behar dugu"

INTERNET ETA HEDABIDEAK

"Hedabideek min handia egin diote, erabili duten sensazionalismoagatik; hausnartu behar dute"

ORDENAGAILUA

"Etxean ordenagailua non kokatzen den kontuan hartzekoa da. Bulegoan egon behar du"

Askotan analfabetismoa eta gizarte hausturaz hitz egiten da. Hala ere, azkenaldian, logikoa denez, kontzeptu horiek gizarte hausturara askotan lotzen dira. Nik nahiago dut haustura profesionalaz edo generazio hausturaz hitz egitea.

Zergatik gelditzen dira Internetera harrapatuta?

Behar dutelako bereziki. Beraien artean erlazioatzeko, gehienbat. Lehen esaten zen ordenagailura harrapatuta zeuden nerabeek ez zutela bizitza sozialik. Hori ez da horrela. Gurasoei dagokie neurriak hartzea. Harrapatuta baldin badaude, profesionalengana jo behar dugu. Baina, aurretik jakin behar dugu muga eta arazoaren oinarria zein den.

Aipatu duzu Internet egunerokotasunean ohiko tresnan bihurtu dela. Baina, segurua da hori gasteendako?

Arazoa da ordenagailuaren erabilera eskolen eta familien inibizioak nerabeak babesgabe utzi dituela hainbat egoeren aurrean. Bere fotologak edo metroflogak gaurkotu ditzaten, lagunei arazo barik ematen dizkiete pasahitzak eta horrek harritzen nau. Inork ez die azaldu, esaterako, Internetetik musika jaisatea delitua dela.

Baina, gauza gehiago daude. Nortasun usurpazio kasuak ere ezagutzen ditut. Nerabezeroan berezko nortasuna eraikitzen dihardute eta askotan ez dira jabetzen Internetek duen potentziaz eta irismenez. Baina, ez da bere errua, inork ez ditu, horren harira, behar bezala hezi.

Zelan lortu daiteke segurua izatea?

Gurasoen hezkuntza osagarri egoki batekin, ikastetxeak ondoren daudela. Interneten gai horren gaineko informazio oso ona dago. Gurasoek seme-alabekin nabigatu behar dute eta irakasleek tokia topatu behar dute gai horiek lantzeko. Irakasleek curriculumean sartu behar dituzte, tutoretza eskoletan, esaterako. Horretaz gain, bide onena da seme-alaben konfiantza lortzea, egoera arraro baten aurrean gurasoei galdeztzeko.

Gurasoek zer nolako neurriak hartu behar dituzte nerabeak ordenagailuaren aurrean ezarzen direnean?

Etxean ordenagailua non kokatzen dugun kontuan hartzekoa da. Nerabe baten logelara ez da tebibistarik edo ordenagailurik egon behar, arreta galtzen dutelako. Ahal bada, egokiena da ikasteko eta lanerako bulegoa izatea. Bere gustuagatik interesatu behar gara eta ordenagailu aurrean ematen dituen orduak mugatu.

Eta irakasleek, zer egin behar dute?

Niretako egokiena da ordenagailuen gela bulego handi batean bihurtzea eta lana denon artean egitea. Era berean, alde txikiendako gelak eduki beharko lituzke. Oso neurri iraultzailea da eta oraindik ez gaude gertu toki guztietan martxan jartzeko, besteak beste, beti atzera begiratzeko erabilgarriak eta eragileak oraindik ez direlako ados jarri zer hezkuntza eredu ezarri behar den. Gaur egungo eredu noraezean dabil.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Euskararen ordenantzen gaineko ekarpenak

Bergarako Euskaltzaleen Bilguneak luzatu egin du euskararen ordenantzaren behin-behineko proposamenari ekarpen gehiago egiteko epea. Urriaren 24a da mugaeguna. Behin-behineko proposamen hori Jardunen eskura daiteke.

OÑATI

> Arrikruzteko kobetako ordutegi berria

Arrikruzteko kobek ordutegi berria dute: urrian, 10:00-14:00 eta 15:00-18:00 (azken bisitak, 13:00etan eta 17:00etan); eta azarotik otsailera, 10:00-14:00 eta 15:00-17:00 (azken bisitak, 13:00etan eta 16:00etan). Astelehenean itxita daude. Argibideak: 943 08 20 00.

BERGARA

> Berriketan egitasmoa laguntzaile bila

Berriketan egitasmoan euskaldun berriei laguntzeko jendea behar dute. Euskaraz jakitea eta eurekin astean ordu betez jarduteko gertu egotea besterik ez da behar. Argibideak, Jardun euskara elkartearen (telefonoak: 943 76 08 19 / 943 76 36 61).

ARRASATE

> Nortasun Agiria egingo dute hilaren 27an

Nortasun Agiria egingo dute urriaren 27an eta 29an (NA elek-

tronikoa bi txandatan egiten dute). Interesa dutenek txanda hartu behar dute BAZen (943 25 20 00 da telefonoa).

BERGARA

> 1968an jaiotakoek kintada egingo dute

1968an jaiotakoek kintada dute zapatuan, urriaren 25ean. Hau da egitaraua: 12:30ean, hamarretakoa Deportivo tabernan, eta txikiteoa; 14:15ean, autobusa Oxirondo merkatu ondoan Tartufoa igotzeko; han, luntxa eta bazkaria; eta buelta, 20:00etan.

ARRASATE

> 1953an jaiotakoak Errioxara doaz

1953an jaiotakoek Errioxara irteera egiteko aukera dute azaroaren 8an. Viña Tondonia Haro upeltegira joango dira lehenengo; txikiteoa egingo dute San Vicente de la Sonsieran; eta Ribas de Tere-

son bazkalduko dute. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

ARRASATE

> 1955ean jaiotakoek kintada egingo dute

1955ean jaiotakoek kintada egingo dute azaroaren 29an. Interesa dutenek 60 euro sartu beharko dute Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan. Azaroaren 25a da mugaeguna.

BERGARA

> 1933an jaiotakoek ospakizuna egingo dute

1933an jaiotako bergararrak bazkaltzeko elkartuko dira azaroaren 16an Zumelaga jate-txean. Izena emateko, 6 euro aurreratu behar dira Intxorta tabernan.

ELGETA

> Podologoak kontsulta pasatuko du

Podologoak kontsulta pasatuko du hilaren 23an, eguena. 15:00etan

hasiko da, eta 22 bezero hartuko ditu, gehienez. Aurretik txanda eskatu behar da (943 76 80 77).

OÑATI

> Bibliaren irakurketarako taldearen bilera

Elkar Hezi ikastetxe-ko gurasoen elkarteak antolatuta, Bibliaren irakurketarako taldeak ikasturteko lehen batzorra egingo du hilaren 23an, eguena, Arantzuko Ama kalean duten egoitzan, 18:15ean.

ARRASATE

> 1942an jaiotakoek meza eta bazkaria

1942an jaiotakoek urteko ospakizuna izango dute urriaren 25ean. San Frantziskon meza entzungo dute 12:30ean, eta Erreka jatetxean bazkalduko dute gero. Izenematea zabalik dago Seber Altubeko dendan.

BERGARA

> 1935ean jaiotakoek kintada egingo dute

1935ean jaiotako bergararrak bazkaria izango dute azaroaren 9an Zumelagan. Izena emateko, sartu 12 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan, azaroaren 4a baino lehen.

BERGARA

> 1958an jaiotakoek, 50. urteurrenako afaria

1958an jaiotakoek 50. urteurren ospatzeko afaria izango dute azaroaren 8an, Tartufon. Usoa kafetegian daude txartelak, 30 eurotan.

etxeke leihotik



Iñazio Arregi > zuzen@goiena.com

Ongi etorri euskararen erresumara

Duela hamabost bat egun PSE-EEk euskararen aldeko manifestua aurkeztu zuen Donostian. Albiste izan zena, beste haize batzuk eramanda desagertu da. Ez dut gaia bazterrean utzi nahi. Aldarrikapena mesfidantzaz jaso da euskaltzaleen eta politikarien hainbat sektoreetan. Niri ere ez zaizkit hainbat baieztapen gustatu baina ez ditut aipatuko.

Baikor izan nahi dut eta oraingoan benetan doala pentsatu. Gure orain arteko lanak ez du horrelako babesik jaso PSE-EEko kideen aldetik. Aitzitik, gure hedabideetan kolaboratzeko eskatu izan diegunean ezezko borobil batekin erantzun izan digute gure hedabideak elebakarrak direla argudiatuz. Euskarazko prentsa eskualdeko etxetara banatzeko edo telebista mantentzeko dirulaguntzak eskatu ditugunean aurkako jarrerak azaldu dizkigute Goiena kooperatiba entitate pribatu bat dela argudiatuz.

Aldarriak, jarrera aldaketa baten berri dakar, eta euskara eta euskarazko hedabideen traineruan, arraunlari gehiagorentzat lekua egin beharko dugu. Oso gustura eta itxaropentsu, olatua hartzen lagunduko diguten haize berriak etor daitezkeelako.

> Seminarioa. XIX. mendean estatuak desmortizazio bidez bere egin zuen Bergarako Erret Mintegia udalarena izango da. Balio beza erosketak Bergarak izan duen gatazka artifizial bat amaitutzat emateko.

> Krisia. Okerrago dabilenarekin parekatuaz lasaitzen gaituzte politikariek. Nota txarrak atara eta lagunak txaragoak atara zituela argudiatzean, gure aitak hobe zebilenari begiratzeko esaten zigun.

"Euskarazko hedabideen traineruan lekua egin beharko dugu"

debagoiendarrak kanpoan

Xabier Abasolo > Aretxabaleta

"Abeltzain moduan lana badago; arazoa da lan hori egitea ez duela inork nahi"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Ikasketei dagokionez albaitari eta abeltzain ofizioz, Atarrabian bizi da Xabier Abasolo (Aretxabaleta, 1972). Orain 12 urte utzi zuen Aretxabaleta eta animalien mundua betidanik izan du gustuko. Horregatik ikasi zuen albaitaritzia, eta horregatik dihardu egun AFNA abeltzain elkar-tearentzat lanean. Zehatzago esanda, Nafarroako Iza herrixkan frisiar arrazako esne behi hazleen taldean egiten du lan.

Zergatik aukeratu zenuen albaitaritzia ikastea?

Betidanik gustatu zaizkit animaliak, etxean txikitatik ezagutu dudana izan da. Hala, animaliak gustuko nituenek, albaitaritzia ikastera animatu nintzen.

1995ean amaitu nituen ikasketak eta esne behiekin hasi nin-

tzan lanean, urtebetera. Lana izan zen Aretxabaleta uztearen arrazoi nagusia eta hasieran larregi pentsatu barik hartu nuen erabakia. Eta, ia konturatu gabe, bertara ezkondu naiz; orain bi seme ditut.

Nolakoa da zure egun normal bat Atarrabian?

Orain goizeko zortzietarako joaten naiz lanera eta arratsaldeko seieterako etxean naiz bueltan. Gero, semeekin parkera edo tokatzen den lekura joaten naiz.

Eta asteburuetan, zer?

Hemen inguruan egiteko berezirik ez badago, hamabost egunean behin harantz joaten gara; etxeokak ikusi, lagunekin egon... Egia esan, azkenaldian gutxitan joan gara. Atarrabian geratuz



X.A.

Animalien artean

Abeltzain moduan dihardu lanean Xabier Abasolok. Mendian ibiltzea eta zinera joatea ditu zaletasun.

gero, lau eta bi urteko semeekin irteeraren bat egiten dugu; bazterren bat ikustera joan eta bizikletan ibili, besteak beste.

Nolakoak dira nafarrak?

Nafarroan ere, leku guztietan bezalaxe, denetarik dago. Nafarrek burugogor fama daukate, baina denak ez dira burugogorak. Hala ere, alde handia dago Iruñatik gorako eta hiriburutik beherako jendearen artean.

Non gusturago, Aretxabaletan edo Atarrabian? Zer botatzen duzu faltan zure jaioterritik?

Alde bietan oso gustura. Umeak direla eta Aretxabaletara gutxitan joaten banaiz ere, ez naiz nire jaioterriarena ahazten, ez horixe! Etxekoak, lanekoak, eta hango parajeak faltan botatzen ditut.

Krisi hotsek gizartea aztoratu dute. Abeltzaintza, hala ere, lehenagotik krisian zegoen ogibidea dela esan daiteke. Hala da?

Egoera ikusita ez dago poztasunerako arrazoirik. Lana izan badago, baina arazoa da lan hori egitea ez duela inork gura. Azken urteetan gero eta abeltzain gutxiago dago, hori da joera.

Esne ekoizleen ofizioa belau-naldiz belaunaldi igarotzen da eta belaunaldi berrien artean normalean inor gutxik gura izaten du lan honetan jarraitzea. Hala, ganadutegiak ixten doaz.

Bestalde, lanaren exigentzia maila oso altua da, eta jende asko erre egiten da. Beste bizimodu asko baino deserosoagoa da abeltzainarena, gogorra. Ekonomikoki, gainera, ez du askotan espe-ro dena jasotzeko aukera ematen.

kale inkesta

Jarraitu duzu AEBetako Obama eta McCain hautagaien hauteskunde kanpaina?



Xabier Mujika
Langilea
Bergara

Entzun dut zer bait, bai. Irrati bidez jakin dut, gehienbat, horren berri, baina ez dut sakonago jarraitu, prentsan, adibidez. Ezta pentsatu ere. Orain ikusi egin behar nork irabaziko dituen hauteskundeak.



Joane Amasorrain
Ikaslea
Bergara

Izenak ezagunak egiten zaizkit baina egia esan ez diet kasu handirik egin. Koadrilan hitz egin dute horren inguruan eta hauteskundeak Obamak irabaziko dituela esaten dute, baina nik ez ditut jarraitu.



Iñaki Larrea
Langilea
Arrasate

Komunikabideak pixka bat jarraituz gero, derrigor jakin behar zer bait, nahi eta nahi ez. Hala ere, gai hori ez da nire interesekoa. Nire inguruan ere ez dut entzun horren inguruan berba egiten.



Bittori Arantzeta
Erretiratu
Bergara

Nik ez dut jarraitu gai hori eta Obama eta McCain nortzuk diren ere ez dakit. Hemengo gaiak, Bergarakoak eta ingurukoak, gehiago gustatzen zaizkit niri. Kanpokoek kasu gutxi egiten diet nik.

zorroztailea



Jasone Mendizabal

Batzen gaituenak

“Iragan asteetan atxilotutako gazteen ordezkariak Parlamentuan agerraldia egiteko eskaera egin du Nafarroa Baik. Gaia aztergai izango du etzi Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzordeak. PSNko Jose Luis Izkok galdetu dio Nafarroa Bairi indarkeria babesten duen edo legediaren alde dagoen”



Berria > 2008-10-18

Azken aldian Nafarroan atxilotutako gazteek tortura salatuta egin dituztela eta gazte hauen ordezkariak Parlamentuan agerraldia egin dezaten eskatu du NaBaik. Horren harira PSNko Izko jaunak honakoa argitzeko eskatu die NaBaiko ordezkariak: "Legediaren edo indarkeriaren alde" dauden argi dezatela. Indarkeria ala legedia, horra hor egin beharreko aukera. Nekagarria eta etsigarria da honelako dikotomia dialektikoaren lekuko izan beharra horrenbeste alditan. Aukeratu dudana adierazpen hau ez baita ez ohikoa, zoritxarrez kolore guztietako politikarien ahotan ohituegi gaude horrelakoak entzuten, beraz ez naiz Izko jaunarekin tematuko.

Legedia edo indarkeria, salatu edo ez salatu, gureak ala aurkakoak. Legearen baitan egiten den oro indarkeriatik salbu balego bezala edo lege kanpoko guztia indarkeriaz kutsatuta.

Gutarrak baitira onak eta gutarrak ez direnei ezin arrazoirik eman. Posizionamenduak beti ere distantziak markatzeko, aldentzeko eta besteen iritziak epaitzeko. Politikarien diskurtso suntsitzailerak dauzkagu etengabe hedabideetan eta nekea besterik ez didate sortzen.

Hauteskunde kanpaina amai ezinetan murgilduta bizi gara, bereizten gaituen hori azpimarratzen eta lubaki gero eta sakonagoetatik parekoa suntsitzen.

Horrenbeste indarkeri jasan duen herri honetan samina alde guztietan dagoela ikusteko gai izan behar ginateke eta ideia politikoetatik haratago besteen saminari arreta jarri. Parekoaren samina entzun. Parekoaren azalean jarri. Ariketa hori egin guran gabiltza horrenbeste emakume herriz herri, ustez ideia kontrajarriak izanda ere adostasun baten bila. Pakean bizi eta mota guztietako indarkeria adierazpenei ezetz esatea. Batzen gaituenetik hitz egiteko ordua da. Horren beharra sumatzen baduzu, emakume, zatoz datorren barikuan, urriaren 24an, Arrasateko *Ahotsak* taldeak Portaloian arratsaldeko zortzietan deitutako bilkurara.

"Gutarrak baitira onak eta gutarrak ez direnei ezin arrazoirik eman"

"Parekoaren samina entzun. Hori egin guran gabiltza horrenbeste emakume"

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Informazio panelak ez ezik, autobus gehiago Oñatin

Oñatiko erretiratu baten gutuna jaso dugu. ASTELEHENKO GOIENKARIAN irakurri duenez, bi informazio panel berri jarriko dituzte Oñatiko autobus geltokietan. Edozein modutan, autobus zerbitzuak eskasa izaten jarraitzen du Oñatin eta hainbat linea indartzeko eskatu nahi dio Diputazioari.

ARRASATE

> Lore Gazteak dantza taldeari zorionak

Arrasateko emakume batek deitu digu, Lore Gazteak dantza taldeari eskerrak emateko aurreko zapatuan antolatutako ikuskizun ederregatik. 200 bat dantzari elkartu zirela Arrasateko plazan eta haien dantzekin eta traje dotoreekin gozatzeko aukera izan zuten, antolatzaileak zoriondu nahi ditu.

BERGARA

> Erretiratuen kultur hamabostaldia Bergaran

Bergarako erretiratu baten mezua jaso dugu, herritarrei gonbidapena zabalduz antolatu duten kultur hamabostaldian parte hartzeko. Oraingo asterako hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta Jonan Fernandezek bihar, martitzena, emango duen hitzaldia eta Oñatiko erretiratuen antzerki taldeak eguaztenean eskainiko duen antzezlan gomendatu dizkigu bereziki. Belaunaldi ezberdinak elkarren berri izateko aukera ona dela azpimarratzen du deitu digun erretiratuak.

ustek uste

Jasone Zabala

Burtsa jaitsi, poltsa igo

Azkenaldian burtsa hitza asko entzuten dut neure inguruan. Wall Street-eko burtsak behea jo duela eta mundu mailako ekonomia kolokan dagoela... Banketxeek gaizki egindakoak, guk, zergak isil isilik eta eskatzen digutenean ordaintzen ditugunok pairatu behar ditugu. Baina burtsaren *astelehen beltzak*, gure poltsaren astelehen beltzean du eragina. Zein da gure astelehen, martitzen eta aste gutziko poltsa beltza? Erosketakoa noski!

Zenbakiei zeroak beldur gabe ipintzen ari dira egunotan egunkaritan, baina nor arduratzten da gure eguneroko erosketen poltsaz? Inor ez! Burtsak behera egiten duen bitartean, gure erosketen poltsak gelditu gabe egingo du gora, poltsikoak hustu arte.

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Arribu Barruso, Jasone Zabala, Oihana Elortza Oinarritzko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **BERGARA**
Ibargaraiko posta zerbitzu bulego berria zabalduko dute eguaztenean > 11



> **OÑATI**
Kurtiderixako etxeak eskuratzeko izenematea urriaren 27ra arte dago zabalik > 12



> **LEINTZ GATZAGA**
Abereak basoan ibiltzea behin betiko arautu dute ordenantza baten bitartez > 14

ANTZUOLA > ITURRIEN GAINEKO IKUS-ENTZUNEZKOA BIHAR, OLARANEN

Iturriak herriko edozein bazterretan asetzen ditu antzuolarren egarriak

ARGAZKITAN Jose Mari Iturbek herri inguruko 58 iturriren argazkiak atera ditu

EGOERA Iturri batzuk egoera onean aurkitu ditu; beste batzuk nahiko gaizki

ONDORENGOENDAKO GPSarekin kokapena zehaztu eta informazioa jaso du etorkizunerako

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuolako iturrien gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko du Jose Mari Iturbek bihar, martitzena, 18:00etan Olanen etxean. 58 iturrien argazkien bitartez erakutsiko du nola aurkitu zituen eta nola dauden egun.

Betidanik izan du Jose Mari Iturbek iturriekiko interesa. "Arrolan ibili nintzenez konpondu genituen hainbat. Ondoren, Udalean sartu nintzenez, asmoa azaldu zen beste batzuk konpontzeko. Gainera, Abiadura Handiko Trenaren obrak direla eta badago arriskua iturri batzuk galtzeko; batzuk galdu dira jadanik; horrek kezka sortu eta pentsatu nuen galdu aurretik denak ezagutu behar nituela".

Kezka horrek bultzatuta Antzuolako mapan agertzen diren iturriak ezagutzen hasi zen. "Asko ezagutzen nituen aurrez eta mapa hartuta ibili nintzen bila. Aurkitzen ez banituen inguruko jendea, baserriarrei, lurjabeiei, aitari... galdetu eta haiek emandako erreferentziekin bueltatzen nintzen; horrela ere aurkitu ezean eurretakoren batekin joaten nintzen tokira. Jendea gertu egon da azalpenak emateko. Egon da kontu honekin nobilela jakinda euren etxe ondoren iturria zegoela esan didanik, eta horrela aurkitu ditut batzuk".



Irrikortako iturria Arrolan. Udalaren ekimenez aurrean auzolanen iturria eta inguru txukundu dituzte. Iturriko harria Ondarra plazako harraskoia zen. JOSE MARI ITURBE

SASI ARTEAN ETA LURPEAN
Iturriak iturri ibili denean batzuk egoera onean aurkitu ditu, besteak nahiko gaizki. "Batzuk sasi artean gordeta zeuden; Otain eta Irular iturriak lurpean. Irular, inguruko jendea galdetuta ere kosta egin zitzaigun aurkitzea. Altamira baserrikoak esan zigun ura nondik irteten zen eta aitzurerek joanda atera genuen. Udaltzetik jardun dugu iturriak txukuntzen eta batek baino gehiagok horren berri izan duenean euren etxe ingurukoak txukundu ditu", esan digu Iturbek.

Askotariko iturriak aurkitu ditu eta guztiak berezitasunen bat dutela dio Iturbek: "Batzuk politak dira, besteak leku berezian daude, besteak ur goxoa dute, besteak metal ura... bakoitzak du bere berezitasuna. Esaterako, futbol zelai inguruan daude lau iturri era berdinean egindakoak: Aldabe, Zupide, Irular eta Frantses iturria".

Beste batzuk sinpleagoak direla dio: "Olamendiko osabarekin Ipurtika aldera, Kanterazar iturrira joan nintzen. Osabak esan zidan iturriak teila bat zeukala garai batean, eta han aldamean aurkitu genuen teila; sinplea baina berezia hura ere".

HERRITARRENDAKO EZEZAGUN
Jose Mari Iturbek berak bai, baina herriko jendeak iturriak ezagutzen dituen galdetuta esan digu lehen jende asko joaten zela iturrietara eta adinekoek ezagutzen dituztela, gazteek, ordea, gutxi batzuk baino ez. "Herrian batzuk

IBILALDIA

Pagape, Otain eta Irular inguruetan barrena iturriak, txabolak eta karobiak ezagutzuz

Urriaren 26rako, Antzuola ezagutzeko ibilaldia antolatu du Udalak. Ibilaldian aukera izango da iturriak, karobiak eta txabolak ezagutzeko. Lapatzatik Landatxo aldera abiatu eta han txabola ikusiko dute; bidean, Misotik herrira ura ekartzeko kutxatila. Pagapen ere iturria ikusiko dute eta Otainen karobia eta iturria. Hortik jende oso gutxi ibiltzen den bidezidor bat hartu eta Arrandari aldera joko dute, bidean pare bat txabola ikusiz. Arrandarira heldu aurretik Irullarera joko dute eta han dago iturri bat oso jende gutxi ezagutzen duena, lurpean aurkitu zutena. Otain aldera bueltatu eta uraska eta iturburua ikusiko dituzte; Altamiran bunker itxurako txabola eta gero Zupideko iturrira joango dira. Inguru horretatik Antzuolako oso ikuspegi polita dago eta aukera polita izan daiteke, jende gutxi ezagutzen duelako.

ezagunagoak dira. Pagapekoa ezaguna da eta polita. Kalebarretetik joaten zen hara ur bila jendea. Fabriketatik ere joaten zen iturrietara jendea. Gu ere baserrietik, Idalatorretik, Idalako iturrira joaten ginen eta baserrian lanean genbiltzanean baten bat ura ekartzeaz arduratzen zen. Orain ere badago jendea kloratutako ura ez edatearren Kalebarreneko edo Aldabeako iturrian ura hartzen duena", esan digu.

Denera 58 iturri aurkitu ditu. "Zerrendan 49 zeuden, hortik bost desagertuta daude eta bat ez dut aurkitu. Bestalde, 14 berri azaldu dira". GPSarekin datuak jaso ditu aurrekoendako erreferentziak uzteko. "Orain katalogatu, mapan zuzenketak egin eta jende nagusia falta denerako informazioa hor geratuko da jasota".

Iturri txikiak handiak beste kentzen omen du egarria eta Jose Mari Iturbek herritarrek iturrien gainean dute jakin mina aseko du.

AZPIEGITURAK > INO GALPARSORO ALKATEAREN BALORAZIOA

"Tranbiaren proiektua urruti dago oraindik"

Arrasateko Udalak hainbat aldaketa egitea proposatu dio Eusko Jaurlaritzari

Pasa den eguenean Ino Galparsoro GOITBn izan zen, arrasatearrei eragiten dien gaiez hizketan

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Orain bi aste iragarri zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, GOITBko *Goiena* magazinean emandako elkarrizketan, Debagoieneko tranbia egin egingo dela.

Astebete beranduago Ino Galparsoro Arrasateko alkatea izan zen GOITBko platoan, eta arrasatearrei zuzenean eragiten dien hainbat gai izan zituzten hizpide,

Tranbiari dagokionez, Galparsorok egitea espero badu ere, proiektua martxan jartzea urruti geratzen dela gaineratu zuen. Arrasateko Udalak proiektu honetan aldaketak proposatu zituen, orain bi aste Ibarretxek *Goiena* Telebistan adierazi zuen moduan. Aldaketa nagusia tranbiaren ibilbidea izan zen. Hasiara batean, Eusko Jaurlaritzak tranbia Zarugalde kaletik pasatzea proposatu zuen. Ibilbide honek hainbat alegazio jaso ostean, Jaurlaritzak Santa Barbarako parketik pasatzeko proposamena luzatu zuen, baina udal gobernuak ez zuen begi onez ikusi. Udalak badu bere proposamena: tranbia, Bergararik Aretxabaletarako norabidean, Garibai kaletik San Andres auzora bideratzea.

HAUTESKUNDE GIROAN SARTUTA

Udaleko osoko bilkurak gogorak izan dira azkenaldian. Galparsoro kartzelan izan denez, batzuetara joaterik izan ez duela gogoratu zuen. Horrez gain, osoko bilkuren giro aldrebestua hedabide askoren presentziarekin eta hauteskundeekin lotu zuen. Bestalde, batzorde ezberdinetan alder-

DATUA

2

MILIOI PASATXO GARBIKETAN

Arrasateko Udalak 2.200.000 euro inguru gastatzen ditu urtero garbiketa lanetan. 1.200.000 euro kale garbiketara zuzentzen dira eta zabor bilketak milioi bat inguru kostatzen du.

di politikoen arteko harremana "normala" dela dio alkateak. Hala ere, zenbait gai "ikuspuntua elektoralista" batetik jorratzen direla deritza. Gainera, gutxiengoan gobernatzeak lan eta zailtasun asko ekarri dizkietela ere esan zuen GOITBn.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Arrasatearren iritzia kontutan hartzeko politika egiten dihardutela gogorarazi zuen alkateak, herritarren parte hartzea bultzatzeko bideak jartzeko beharra azpimarratuz: "Herritarren parte hartzearen adibide bezala aipa genezake San Josepe harrobia berreskuratzeko ideien artean bost finalistetako bat arrasatearrek aukeratuko dutela".

MILATIK GORA KEXU

Bestalde, herritarrek zeresana badutela adierazten du Biztanleen Arreta Zerbitzua zabaldu zenetik, orain dela bi urtetik: 1.300 kexu, iradokizun eta abisu jaso dituzte. Kexa gehienak zerbitzu arlokoak izan dira. Kexuok era

ESANAK

"Alderdien arteko harremana normala da udaletxean, zenbait gai ikuspuntu elektoralista batetik jorratu arren"

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea

"Herritarren parte hartzea garrantzitsua da oso. Jendea kexak, iradokizunak eta ekarpenak egitera animatzen dut"



Debagoieneko tranbia Garibai kaletik pasatzea nahi du Arrasateko Udalak.

JOSETXO ARANTZABAL

Azpiegitura lanak eta merkataritza gunearen auzia, egitasmo nagusiak

Arrasateko Udalak hainbat egitasmo ditu mahai gainean. Mugikortasun Planari dagozkion lanek arazoak sortu dituzte, hala nola, AHT, Debagoieneko tranbia edo geltoki intermodalaren proiektuak.

Tranbia epe luzera aztertu behar dela uste du udalak. Geltoki intermodala Arrueneko parkean egitea nahi zuen Foru Aldundiak baina Udalak ez du proposamen hori begi onez ikusten. Ino Galparsorok dioenez, "kiroldegi garrantzitsu bat [Mojategiko kirol instalakuntzak] dago ondoan eta inguruan dagoen espazio berde

positiboan baloratzen ditu Galparsorok, "Jendea kexak adieraztera animatzen dela esan nahi duela". Kexei erantzuteaz zinegotzi bat arduratzen da. Momentuan erantzun daitezkeenak momentuan konpontzen dira, eta bestela epe bat zehazten da konpontzeko. Ibilbide luzeagoa behar dutenak konpontzeko, Galparsororen arabera, denbora laburragoan ebazteko erronka hartu dute. "Herritarren parte hartzea oso garrantzitsua da eta kexak, iradokizunak eta ekarpenak egitera animatzen dut jendea".

ETXEBIZITZAK, HOBE ERRENTAN

Arrasaten etxebizitza asko erai-ki da azkenaldian. Udalak "apustu sendoa" egin du arrasatearrei gurasoen etxetik irtetea ahalbidetzeko. Galparsorok errentan hartzeko etxebizitzak defendatzen ditu, izan ere, "etxebizitzaren prezioek ez dute zerikusirik jendearen aukera ekonomikoekin".

APARKALEKU FALTA, DENON ARAZO

Herriko arazo nagusietakoa da autoa aparkatzeko lekurik ez dagoela. Hiriburuetan jartzen diren ordain bidezko aparkale-

bakarra da, eta ez dugu uste espazio hori intermodala egiteko sakrifikatu daitekeenik".

Eroskiren handitze plana ere asko entzuten da kalean. Eroskik ez du proposamen zehatza mahai gainean jarri, baina proiektu hau oso ezberdina da Zabaleta proiektuarekin konparatuz. Legegintzaldi honetan atzera bota zen egitasmo hark 28.000 metro koadro behar zituen, eta Eroskiren handitzeak 13.000 metro koadro gehiago suposatuko ditu. "Ez da hainbeste, baina negoziazioak zailak dira", dio Galparsorok.

kuak -TAO/OTA delakoa- jarri behar dela askotan entzun da, baina Udalak ez dauka aurreikusita. Ildo beretik, Laubideko aparkalekua herritarrei zabaltzeko aukera ikusten ari dira, baina kontzesio administratiboek espero baino erritmo geldoago batean doazela argudiatu du Galparsorok.

Hala ere, "soluziobidea denon esku" dagoela uste du Arrasateko agintari gorenak: "ezin dezakegu herri erdialdean ibiltzeko autoa hartu, erdigunea autoz kolapsatuta geratzen baita".



Irudian, etzi zabalduko duten posta zerbitzuko bulego berria, Ibargarai kaleko 17. zenbakian.

JASONE ZABALA

Lokal berriarekin Burdiñateko bulegoa posta banaketarako erabiliko da soilik; posta zerbitzua Ibargarai kalean egingo da

ZERBITZUAK > POSTA ZERBITZUA

Eguaztenean zabalduko dute Ibargarain posta zerbitzuko bulego berria

JASONE ZABALA > BERGARA

Etzi, eguaztena, zabalduko dute Ibargarai kalean dagoen posta zerbitzurako bulego berria. Horrela Burdiñaten 18 urtetan zehar bezeroendako zabalik egon den bulegoa soilik bertako langileek erabiliko dute. Guztira, erdigunean zortzi posta banatzaile daude une honetan, eta beste bost dira auzoetan ibiltzen

direnak. Guzti horiek Burdiñateko bulegoan arituko dira, eta egunean banatu beharreko posta bertan batuko dute.

LOKAL BERRIA BEZEROENDAKO

Bezeroak, berriz, Ibargarai kaleko 17. zenbakiko etxebizitzako lokaletan zabalduko den bulego berrira joan beharko dute, posta botatzeko, jasotzeko, eta bes-

te zereginetarako. Orain arte posta kutxatila Burdiñateko lokalean izan duenak, lokal berri- ra joan beharko du.

LAUGARREN KOKALEKUA

Bergarako posta zerbitzuaren bulegoak hainbat kokaleku ezberdin izan ditu urteetan zehar. Lehenengo posta bulegoa San Martin plazan egon zen

–orain Kutxa dagoen lekuan–. Ondoren Masterreka kalera eram- an zuten – Pertxa elkartearen ondoan dagoen pasabidean– eta duela 18 urte inguru, Burdiña- ten ipini zuten.

Bulego berriak izango duen ordutegia ondorengo izango da: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 14:30era, eta zapatuetan, berriz, 09:30etik 13:00etara.

> ZOZKETA

Elosuko azokako zozketa: 9.181 izan da zerbaki saritua

Elosuko mendiko ganadu azokan egindako zozketako irabazlea zerbaki hauxe izan da: 9.181 (gorria). Hiru koloretako txartelak zeuden eta kolore gorriak irabazi du saria. Txartel hori duenak sari hau eskuratu du: hainbat produktuz betetako eskorga, karretilla bat.

Mendiko ganadu azoka joan den domekan ospatu zuten Elosun. Aurtengoa feriarenean 30. ekitaldia izan da, 1979an jarri zuten abian-eta.

> ERAKUSKETA

Jon Balentziagaren erakusketa ikusgai kultura etxean

Jon Balentziagaren pintura eta eskultura erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean, datorren zapatara arte, urriaren 25era arte.

Eskultura eta giza gorputza uztartuz sortu duen lana izan da Balentziagarena. Bere lanak ikusteko interesatuen- dako hauxe kultura etxeko ordutegia: astelehenetik egu- bakoitzera, 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuan, 12:00etatik 14:00etara.

> ATLETISMOA

Soraluze-Bergara kroserako izena ematea zabalik

Azaroaren 1ean egingo dute Soraluze-Bergara krosa, Olatz Rementeria memoria- la. Izena emateko epea zaba- lik egongo da lasterketa egu- nera arte, azaroaren 1era arte. 10 euro balioko du izen emateak. Bergarako Lazka- no oinetako dendan edo Map- fre aseguru etxean egin dai- teke. Egunean bertan izena eman nahi duenak ere auke- ra izango du. Lasterketa egu- nean ordaindu beharrekoa 15 euro izango da.

> FILM LABURRAK

Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna, azaroak 3

Bergarako Udalak III. Film Laburren lehiaketa antola- tu du. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 3a izango da.

Filmeen proiektzioa eta sari banaketa ekitaldia aza- roaren 28an izango da 19:00etan Zabalotegi areto eraberrituan. Lehiaketan parte hartu nahi duen edo- nork bete behar dituen oina- rriak ikusgai ditu ondore- go helbidean: www.bergara.net.

San Joxepe elkartekoek Segurara egin zuten txangoa

Aurreko martitzenean, kultur hama- bostaldiaren barruan, San Joxepe elkartekoak txangoa egin zuten Segura aldera. Guztira 60 lagun joan ziren eta primeran ibili ziren. Bertako Ardixarra museoa bisitatu zuten, XIV.mendekoa, arbasoen antzinako etxea. Bertako eliza ere bisitatu zuten, baita Segurako txo- ko ezberdinak ere. Bergarara buel- ta iluntzean egin zuten.



MAITE SUINAGA



Oraindik ez dituzte Kurtiderixa guneko etxeak eraiki, baina bigarren zozketa egingo dute.

GOIENKARIA

Eskaerak udal bulegora eroan behar dute interesatuek

2007. urteko diru-sarrerak hartuko dituzte kontuan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Otadui Zuhaitzia kaleko 12-A eta 12-B zenbakietan eman gabe geratu ziren etxe tasatuak eskuratzeko izenematea zabaldu du Udalak. Hain justu ere, hilaren 27ra arte egin daitezke eskaerak udal bulegoetan. Bigarren zozketan, lehengoan eman gabe geratu ziren 12 etxebizitza tasatuak zozketatuko dituzte

ETXEBIZITZAK > ZOZKETA BERRIA

Kurtiderixako etxeak eskuratzeko izenematea zabalik, hilaren 27ra arte

Bigarren zozketako oinarriak Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu ziren urriaren 15ean. Hortaz, lehen zozketako baldintza berberak eskatuko zaizkie interesatuei. Alde batetik, 2007. urteko diru-sarrerak hartuko dituzte kontuan. Hain justu ere, 27.000 eta 54.165 euro arteko sarrerak izan beharko dute. Gainera, etxebizitzaren titular-kide

guztien diru-sarrerak hartuko dituzte kontuan. Bestalde, Oñatin erroldatuta egotea ez da derrigorrean interesatuek bete beharreko baldintza.

ZOZKETA, LAU KUPOTAN

Zozketa egiterakoan 12 etxeak lau kupotan banatuko dituzte. Alde batetik, ezgaitasunen bat dutenen artean etxe bat zozketa-

tuko dute; beste alde batetik, hiru seme-alaba edo gehiago dituzten artean hiru etxe banatuko dituzte. Beste hiru etxe Etxebiden lau urtez edo gehiagoz izena emanda dauden artean. Azkenik, gainerako etxe guztiak kupo orokorren zozketatuko dituzte. Dena den, kupo bakoitzean etxea lortzen ez dutenek, bigarren aukera izango dute kupo orokorrean.

Pibotak jarri dituzte autoak espaloi gainera igo ez daitezzen

Kultura etxea eta Lope Agirre kaleen aurreko errepidea asko estutu da espaloiak zabaldu zituztenetik, eta autoak espaloi gainera ez igotzeko pibotak jarri dituzte. Orain lasaiago ibiliko dira oinezkoak eta polikiago ibili beharko dute gidariak autoa espaloi gainera igotzeko aukerarik ez dute-eta.



MIREIA BIKUÑA

> DEIALDIA

Bibliaren irakurketa taldeak antolatutako bilera, Elkar Hezin

Hitzaren Argitan, bibliarako irakurketarako taldeak 2008-09 ikasturteko lehen bilera antolatu du. Hain zuzen ere, eguenean egingo dute bilera, Elkar Hezi ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako erakinean, 18:15ean. Donostia-ko Gotzaindegiko Maria Jesus Amundarainek gidatuko du saioa. Herritar guztiak daude gonbidatuta bilerara. Informazio gehiago gura duenak 943 78 28 70 telefonora dei dezake.

> DEIALDIA

Behobia-Donostia probara joateko autobusak Oñatitik

Azaroaren 9an jokatu den Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa eta bazkaria antolatu gura ditu Antxintxiketan kirol elkarteak. Bazkaria Olaberriako Etxezuri sagardotegian egingo dute.

Antxintxiketan kirol elkartearekin joan gura dutenek, lehenbailehen eman behar dute izena Zero KM kirol dendan, eta 10 euro aurreratuko beharko dituzte.

> ZINEMA

'Antes que el diablo sepa que has muerto' eguenean

Zineklub taldekoek pelikula eskainiko dute eguenean, kultura etxean 20:00etatik aurrera. Hain zuzen ere, Sidney Lumet zuzendariaren *Antes que el diablo sepa que has muerto*. Thriller bat da, eta Phillip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Marisa Tomei eta Albert Finney dira protagonistak nagusienak.

Hurrengo astean eta jatorrizko bertsoan, Terry Gilliam zuzendutako *Tideland* pelikula eskainiko dute.

> KIROLA

Gazteendako batuka talde gehiago jarriko dituzte kiroldegian

DBHko Bigarren eta Hirugarren mailako neska-mutikoendako batuka talde berriak osatuko dituzte kiroldegian, eguaztenetan eta egubakoitzetan, 17:30ean.

Bestalde, eguaztenetan 10:15ean, body balanceko talde berria osatuko dute. Eskolak eguaztenetan hasi zituzten. Zubikoak eskaintzen dituen talde berrietan parte hartu gura dutenek kiroldegian eman behar dute izena.

ARETXABALETA > KULTURA

Txotxongiloak egiteko eta maneiatzeko ikastaroa gertu

Loramendik antolatutako duen ikastaroa hamabi ordukoa da eta Kontakatilu antzerki taldeak emango du

Urriaren 24an amaitzen da horretan izena emateko epea

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Txotxongiloak gustura daude egunotan Aretxabaletan. Joan den urriaren 11n, Enkarni Genua titiriteroa izan zen *Galtzagorriak* izeneko txotxongiloen antzezlanarekin. Ikuskizunean izandako umeak eta gurasoak oso gustura irten ziren. Algarak izan ziren nagusi emanaldiak iraun zuten bitartean.

Arrakasta horren ondotik, Loramendi Euskara Elkarteak txotxongilo ikastaroa antolatu du orain. Txotxongiloak egiten eta horiek maneiatzen ikasteko ikastaroa da. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago; urriaren 24ra arte eman daiteke. Interesatuta daudenak Loramendira joan behar dira eta 40 euro ordaindu beharko dituzte. Ohikoa den moduan, plaza mugatuak dira.



Enkarni Genua titiriteroa bere txotxongiloekin izan zen urriaren 11n Arkupen.

JOSETXO ARANTZABAL

AZAROAREN 4TIK 13RA

Txotxongiloak egiten erakusteko eskolak azaroaren 4an, 5ean eta 6an egingo dira, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Arkupen. Azaroaren 11n, 12an eta 13an, berriz, horiek nola erabili behar diren erakutsiko dituzte Kontakatilu antzerki taldekoek.

Kasu horretan ere, ordutegi berdina izango dute eskolek.

Esan bezala, Kontakatilu antzerki taldeak emango du ikastaroa. Mikel Ibarzabal bergararra sortutako taldea da, Aitor Ormaetxea txotxongilo zale biz-

kaitarrarekin batera. Aurretik, lagunekin batera, Hankapalo taldea sortu zuen Ibarzabalek; eta talderako panpinak egiteari ekin zion. Ekoiztutakoagatik ezaguna egin zen eta enkarguz lan egiten hasi zen; gaur egun hori du bere lanbidea.

ESKORIATZA > UDALA

Taxi zerbitzuaren tarifak onartu dituzte

Datorren urteko herri barruko taxi zerbitzuaren prezioak erabaki zituzten joan den astelehenean

Gutxieneko tarifa 3,1294 eurokoa izango da egunez eta gaez; hortik aurrerako prezioak aldatuko dira

M.B. > ESKORIATZA

Joan den astelehenean egin zuen ez ohiko osoko bilkuran datorren urterako herri barruko taxi zerbitzuaren tarifak onartu zituen udalbatzak. Betiko moduan, herri barrurako bi tarifa mota egongo dira: astegunetakoak, 07:00etatik 22:00etara; eta gauekoak, 22:00etatik 07:00etara, eta jai-egunetakoak.

Lehenengoan, gutxieneko tarifa 3,1294 eurokoa izatea erabaki dute; horrekin batera, egindako kilometro bakoitzeko bezeroak 0,9803 euro ordaindu behar-

ko duela eta itxaron aldia, orduko, 18,7223 eurokoa izango dela zehaztu dute udalbatzakoek.

KILOMETROKO 1,5636 EURO

Gauean eta jai-egunetan, gutxieneko tarifa aurrekoaren berdina izango da: 3,1294 eurokoa, hain zuzen. Hortik aurrerakoak, baina, aldatuko dira. Hala, egindako kilometro bakoitzak 1,5636 euro balioko du. Taxia zain dagoen bitartean, azkenik, bezeroak 29,4314 euro ordaindu beharko ditu datorren urtean.



Taxi zerbitzuaren tarifak onartu ditu udalbatzak.

J.Z.

Herri barruko taxien prezioak

TARIFA 1

GUTXIENENKO TARIFA	EGINDAKO KILOMETROA	ITXARON ALDIA, ORDUKO
3,1294	0,9803	18,7223

TARIFA 2

GUTXIENENKO TARIFA	EGINDAKO KILOMETROA	ITXARON ALDIA, ORDUKO
3,1294	1,5636	29,4314

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA

> ARETXABALETA

Ordenantza fiskalen zuzenketak onartu ez izana salatu du EBk

EBko udal bozeramaile Tomas Fernandezek azaldu du datorren urteko ordenantza fiskalei aurkeztutako eta astelehenean osoko bilkuran onartu ez ziren zuzenketekin "krisiari ahalik eta modu onean aurre egin" eta aretxabaletarren ongizatea "mantendu" gura zela.

Fernandezek ohartarazi du, horren harira, Diputazioak diru gutxiago emango diola udalerritari datorren urtean eta beraz, aurreko urteetako gastua mantendu gura bada, berezko sarrerak handitu beharko direla.

> ARETXABALETA

Eguenean Hego Amerikaren gaineko ikus-entzunezkoa dago

Aretxabaletako Udalak urri-rako gertatu duen eskaintza kulturalaren barruan, eguenean, urriak 23, Hego Amerikatik motorrean egindako bidaiaren gaineko ikus-entzunezkoa dago. *Hego Amerika motorrean, Che-ren ibilbidea* du izena horrek.

Sapochonco elkartea izango da ibilbide horren gaineko azalpenak ematen dituen. Betiko moduan, ikus-entzunezkoa 19:30ean hasiko da.

> ESKORIATZA

Erreflexologia ikastaroan izena emateko azken eguna

Gaur, astelehena, amaitzen da erreflexologia ikastaroan izena emateko epea. Eskatzaileek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Ikastaroa 18 ordukoa izango da; saioak eguenean, hilak 23, hasi eta abenduaren 18ra arte luzatuko dira. Kultura etxean izango dira.

Eskoletan erreflexologian jarduteko beharrezko ezagutzak eskainiko dira, besteak beste. Informazio gehiago gura duenak 943 71 46 88 telefono zenbakira dei dezake.

Hirusta
Zatekoa

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Zaldiak Gatzagako Goierri auzoko zelaietan, azpian herria ikusten dela.

MIRARI ALTUBE

LEINTZ GATZAGA > ORDENANTZA

Abereak basoan ibiltzea behin betiko arautu dute

Jabeek Gatzagan bizi eta Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan inskribatuta egon behar dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Onura publikoko Gatzagako Mendia basoan abereak ibiltzea arautzen duen ordenantza behin betiko onartu dute egunotan. Eta dagoeneko indarrean dago.
Gatzagako Udalak eta Aldundiak elkarrekin egiten diote jarraipena Gatzagako Mendiari eta baso hori zaindu eta hobetzea du helburu onartutako ordenantzak. Abereak bertara eroan gura dituzten abeltzainek Gatzagan bizi eta errolatuta egon behar dute. Bi baso bereizten dituzte Gatzagan, GI-3310 errepidearen

banaketa kontuan hartuta, eta eskatzailearen helbidearen arabera banatuko dituzte abereok batera edo bestera.

Datorren urterako baimen eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira azaroaren 30a baino lehen, basora eroan gura den espeziea eta abere kopurua zehaztuta. Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda izan behar dute abeltzainek baimena eskuratzeko. Gainera, abereok osasun betebeharrak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute jabeek.

TXERRIEK DEBEKATUTA

Gatzagako Mendian behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldiak ibil daitezke; txerriek guztiz debekatu daukate. Ardiak eta zaldiak maiatzaren 1etik hurrengo urteko otsailaren 29a bitartean egon daitezke basoan, eta behiak, maiatzaren 1etik azaroaren 30era. Basoko eremu baten gaudu gehiegi balego, beste batera eroan beharko dituzte. Halakoe-tan, hektarea bakoitzeko 10 ardi edo bi behi edo zaldi bat sartu ahal izango du jabe bakoitzak.

Egingo den ustiapenaren ordain moduan Udalak kuotak ditu jarrita. Erabilitako basoa zaintzeak dakartzan gastuak ordaintzeko dira kuota horiek.

ELGETA > UDALAREN PERTSONAL POLITIKA

Oposizioa kezkatuta dago azkenaldian Udalak duen pertsonal politikarekin

Kirol teknikari eta kultura teknikari postuak hutsik gelditu dira eta oposizioak neurriak eskatzen dizkio udal gobernariari

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Azkenengo osoko bilkuretan oposizioak behin eta berriz agertzen duen kezka da Udalaren pertsonal politikarena. Patxi Basauriren taldeak dio kirol teknikari eta kultura teknikari postuak hutsik gelditu direla eta Udalak

ez duela horren aurrean oraindik inongo alternatibarik planteatu.

Orain arte kirol teknikari lanak egin dituen Oskar Carrascalek bi urteko eszedentzia eskatu du eta Oñatiko Udalarendako dihardu orain lanean. Enrike Gorrotxategik, berriz, kultura teknikari postua utzi egin du Eskoriatzako Udalean itzulpen lanak egiteko.

"Behin eta berriz galdetu dugu zein neurri hartuko diren egoera honen aurrean", esan zuen Iñaki Ugarteburuk azken osoko bilkuran. "Trailerako erantzun bat izango genuela esan ziguten, baina ez da horrela izan".

BATZORDE BURUAK LANEAN

Salaketa honen aurrean Oxel Erostarbe alkateak erantzun zuen zeregin horietan batzorde buruak dihardutela momentuz. "Lan hori euren gain hartu dute eta ondo betetzen ari direla uste dut", adierazi zuen.

Alkateak gaineratu zuen, halaber, Udalak hausnarketa prozesu bat abiaraziko duela egoerari zein irtenbide eman erabakitzeko. "Datorren urteko aurrekontuak landu behar ditugu eta orduan argituko dira kontu horiek guztiak. Pentsatzen dugu abendurako mahai gainean jartzeko moduko erabakia izango dugula".

ANTZUOLA > KIROL AZPIEGITURAK

Frontoiko lanengatik Oñatin jokatuko dira pilota partiduak

Orain konponketa eta margotze lanak egingo dituzte; eta data zehatzik gabeko bigarren fasean argiteria eta atek konponduko dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Joan zen astelehenean ziren hastekoak frontoiko kanpoko aldeko obrak, baina oraindik ez diote ekin. Hala ere, jakinarazi dute lanak amaitzeko data ez dela atzeratuko.

Pilotalekuko lanak direla eta entrenamenduetarako eta partiduetarako beste frontoi baten bila jardun dute pilota elkartekoek. Oñatiko Udalarekin tratua egin ostean, Zubikoa kiroldegian egingo dituzte.

Elkartetik esan digutenez, Bergarako frontoira joatea pentsatu zuten, baina han ezin da

palarekin jokatu eta antzuolarrrek palaz eta eskuz jokatzeko duten taldeak dituztenez, Oñati aukeratu dute.

ARGITERIA ETA ATEAK

Elkartekoek egoki iritzi diete egingo diren lanei, baina horma berdez margotuko dutenez, nahiko lukete argi potentzia ere altzatzea. Udaletik jakinarazi digute oraingo lanen barruan ez dela sartuko eta bigarren fase batean konpondu nahi dituztela argiteria eta frontoiko atek. Hala ere, noiz egingo duten ez dakite oraindik.



Pilotalekuaren kanpoko lanak egingo dituzte lehenengo.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ARAMAIO > ABIADURA HANDIKO TRENA

Errekara kutsatutako lurrak bota dituztela salatu dute

Aramaio Zainduzek esan du zabortegiko lurrekin estaltzen dihardutela erreka

eraikiko dute. Horretarako ingurua lurrez bete behar dute. Aramaio Zainduz elkarteko kideek diote lur betetze hori zabortegi batetik hartutako lur kutsatuekin egiten dihardutela. Gaineratu dute Bolinburu errekan karramarroak daudela eta horiek, kutsaduraren ondorioz, desagertu egingo direla.

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaio Zainduz elkartek Abiadura Handiko Trenaren lanak salatu zituen pasa zen astean Uraren Euskal Agentziaren aurrean. Salaketa horren bitartez jakinarazi zuten trenaren lanekin Bolinburu errekatxo hondatu egin dutela.

Bada, orain, salaketa hori zabaldu egin dute. Aramaio Zainduz elkartekoek diote Bolinburu erreka kutsatutako lurrekin estaltzen dihardutela. Izan ere erreka inguruan trenak gelditu, aurreratu eta aldatzeko plataforma bat

INFORMAZIO FALTA

Beste behin ere Abiadura Handiko Trenaren gaineko informazio falta salatu du Aramaio Zainduzek. "Egun batetik bestera gure ingurua kutsatutako lurrez beteta aurkitu dugu, ezer jakin barik. Kristalak, plastikoak, lixiba botilak, pilak, egurra... denetarik bota dute erreka". Aramaio Zainduzekok uste dute Aramaio zabortegi zaharretik hartu dutela aipatutako lur kutsatua.

Kirola



> **FUTBOLA**
Defentsako hutsen ondorioz puntu banaketa egin zuten Ibaran > 16



> **ESKUBALOIA**
Ford Mugarrik eta Hondarribiak 25-25 berdindu zuten zapatuan > 19



> **ELKARRIZKETA**
Antxon Artza piraguista nafarra elkarrizketatu dugu > 21

ERRUGBIA > BILGUNEA MOJATEGIN

Harrobia sendotu asmoz Gipuzkoako taldeetako ehun gaztetxo bildu ziren



Mojategiko zelaian infantil mailako ehun gaztetxo inguru batu ziren domeka goizean, beraien artean partiduak jokatzeko.

JOSETXO ARANTZABAL

BIGARREN ALDIZ

Aurtengoa da Arrasaten ospatzen den bigarren bilgunea

HARROBIA SORTZEA

Errugbi eskola bat dago Arrasaten 9-12 urteko gaztetxoendako

GERTUTASUNA

Mojategiko zelaiaren gertutasunak jende gehiago erakartzen du

JASONE ZABALA > ARRASATE

Atzo izan zuten Mojategiko zelaian infantil mailako errugbi gaztetxoek bilgunea. Arrasateko mutikoez gain Gipuzkoako beste sei taldeetako gaztetxoak –Irun, Hernani, Atco. San Sebastian, Bera-Bera eta Eibar– bildu ziren bertan. Guztira, 100 gazte inguru.

Goizeko hamarretan hasi ziren; bi multzo ezberdin egin zituzten, multzo bakoitzean lau talde eta bakoitza begirale espezializatuekin. Errugbiarekin zerikusia duten jolasak egin zituzten hasieran; ondoren, begiraleek

errugbiko oinarriko arau eta jokaldi batzuk azaldu zizkien eta amaitzeko norgehiagoka ezberdinak jokatu zituzten multzo bereko lau taldeek beraien artean. Talde bakoitzean 9-12 gaztetxo zeuden.

Lehen multzoan Bera-Bera, Ordizia A, Irun eta Atco. San Sebastian taldeak zeuden. Horiek 15 minutuko zati bateko partiduak jokatu zituzten. Bigarrean, Hernani, Ordizia B eta Eibar. Horiek, berriz, 15 minutuko bi zati jokatu zituzten. Arrasateko taldekoek ez dute talde oso bat egiteko nahiko gaztetxo eta Atco. San

Sebastian taldekoekin batera jardun zuten. Claudio Merchan, Arrasateko Errugbi taldeko kirol koordinatzaileak zera azaldu zigun: "Arrasaten zazpi gaztetxo ditugu errugbi eskolan; lau infantilak eta beste hiru txikiagoak – kadete mailan 10 gazte daude eta 2 gazte mailan–. Gaztetxo horiek domeka goizetan elkartzen dira errugbian ikasteko eta praktikatzeko".

AURTENGOA BIGARRENA

Aurtengoa da Arrasaten ospatzen den bigarren bilgunea. Merchanek adierazi duen bezala: "Bilgune horiek bi astean behin edo hiru astean behin egiten dira. Oso positiboa da horrelakoak egitea adin horietako gaztetxoendako errug-

bia ezagutzen joateko eta beste herri batzuetako jokalariekin batera jokoan aritzeko".

Horretaz gain, neska-mutikoen errugbi mundura hurbiltzean handia dela adierazi digu Merchanek eta hori orain errazagoa izan daitekeela Mojategin, hurbiltasunagatik –Atxabalpeko zelaia baino gertuago– eta zelaiaren egoera ere egokiagoa delako. Merchanek inguruko gazte guztiak animatu nahi ditu errugbi eskolan parte hartzera. "Bertan 9-12 urte bitarteko gazteek eman dezakete izena. Ordaindu beharreko urteko kuota 30 euro izango da. Domeka guztietan 10:00etatik 11:30eara Mojategira etor daitezke".

ASTEBURUAN ERRUGBI TALDEEK LORTUTAKO EMAITZAK

Asteburuan jokatutako partiduetan zorte ezberdina izan dute Arrasateko taldeek

Senior mailako neskek ezin izan zuten Getxo talde indartsuaren aurka ezer egin zapatuan jokatutako partiduan: 94-0 galdu zuten arrasatearrek. Arazoak izan zituzten taldea osatzeko lesio ugariarekin dabilzako. Hasierako 20 minutuetan ederki eutsi zioten talde bizkaitarrari; ez baitzioten utzi punturik lortzen. Hortik aurrera Getxoko taldea nagusitasun osoarekin gailendu zen. Senior mailako mutilek, berriz, erraz irabazi zioten Arratiako Txekorrak taldeari Mojategin, 43-3ko emaitzarekin. Pasa den astean puntu bakar bategatik galdu ondoren, zapatuko partiduan kontzentrazio osoa lortu zuten arrasatearrek, maila ona erakutsiz. Durango taldearekin jokatzen duten kadete mailako jokalariek, berriz, 31-17 galdu zuten Universidad Bilbao taldearen aurka.



Jokalaria bat baloia jaurtitzen atzoko partidu batean.

JOSETXO ARANTZABAL

PREFERENTE MAILA > UDA-AURRERA

Lehenengo zatian nagusi izan ondoren Iturberen lesioak partidua aldatu zuen

Gol bikaina sartu zuen Espinosak bosgarren minutuan; bigarren zatian aldiz defentsan arazoak izan zituen etxeko taldeak

UDA

1-1

ONDARROAKO AURRERA

UDA > Jon Ander, Raul, Alain, Astola, Gorka (Akaitz, 60. min.), Lopez, Oinatz (Gotzon, 62. min.), Haritz, Eriko (Otxoa, 87. min.), Piru eta Espinosa (Iñaki, 75. min.).

Ondarroako Aurrera > Aranbarri, Goñi, Lema, Akarregi, Eraña, Landaribar, Gambia (Arreitunandia, 67. min.), Arkutxa (Urkini, 70. min.), Badiola, Laka (Aramaio, 87. min.) eta Duarte (Dena, 80. min.).

Golak > 1-0: Espinosa (5. minutuan); 1-1: Badiola (86. minutuan).



Oruetak lan bikaina egin zuen zelai erdian partidu osoan zehar.

JOSETXO ARANTZABAL

JASONE ZABALA > ARETXABAETA

Ondo hasi zuen partidua UDAk sailkapenean puntutara berdinduta zegoen Ondarroako Aurrera taldearen aurka. Partidua hasi eta berehala (5. minutuan) gol bikaina sartu zuen Espinosak Lopezek emandako pase bat aprobetxatuz. Lehen zati honetan ondo mugitu zuen etxeko taldeak baloia

eta ezkerretik eta eskuma aldetik arrisku handia sortu zuen. Ondarroako taldea urduri ibili zen lehen minutuetan, zelaian jarri ezinda. Oruetak beste aukera argi bat izan zuen etxekoendako lehen zati honetan, baina atezainaren aurrean ez zuen asmatu. Ondarroak ere izan zuen aukeraren bat baina horrela amaitu zen lehen zatia.

ITURBEREN LESIOA, ERABAKIGARRIA

Bigarren zatian Ondarroako taldea berdinketaren bila atera zen; seigarren minutuan gol aukera izan zuten. Momentu horretan Igor Gordobilek derrigorrezko aldaketa egin behar izan zuen Iturbe lesionatu ondoren. Bere ordez Akaitz atera zen zelaira. Ondorioz, Aritz Igartua erdilaria

defentsako lerroan kokatu zen. Egoera horrekin etxeko taldea desegonkortu egin zen eta hutsak egiten hasi zen, batez ere atzeko aldean. Huts horiek ederki aprobetxatu zituen Ondarroak eta partiduko 86. minutuan Badiolak berdinketaren gola lortu zuen epaileak adierazi zuen penalti eztabaidagarri baten ondorioz.

PREFERENTE MAILA > MONDRA-PASAJES

Mondra irabazten hasi bazen ere Pasajes taldeak goitik behera dominatu zuen partidua

Lehen hamabost minutuetan itxura ona erakutsi bazuen Azkargortaren taldeak; bigarren zatian behera egin zuten etxekoeik

MONDRA

2-3

PASAJES

J.Z. > BERGARA

Ondo hasi zuen partidua atzo Mondrak. Lehen zatiko hamabosgarren minutuan Arandok gola egin zuen. Baina momentu horretatik aurrera partidua bideratu beharrean, behera egin zuen Andoni Azkargortaren taldeak. Pasajesek aurrera egin zuen eta berehala lortu zuen berdinketa-



Mondrak nahia eta ezina erakutsi zuen atzo Mojategin.

JOSETXO ARANTZABAL

ren gola; jarraian aurretik jarri zen markagailuan (1-2). Defentsan eta erasoan akats handiak egiten hasi ziren eta kanpotarrei mota guztietako erraztasunak eman zizkieten. Bigarren zatian,

epaileak adierazitako penalti eztabaidagarri baten bitartez, hiru-garrena sartu zuen Pasajesek; etxekoeik markagailuko alde murritzeta lortu bazuten ere (2-3, Murua) ez zen nahikoa izan.

ALOÑA-BERIO

Partidu orekatuan puntu banaketa

J.Z. > BERGARA

Berdintasun handiko partidua jokatu zuten atzo Aloñak eta Beriok, eta hori izan zen markagailuak erakutsi zuena (2-2). Gol guztiak lehen zatian lortu zituzten. Horrela partidua hasi eta 8. minutuan kanpotarrak aurreratu ziren. Baina Aloñak erasoan jarraitu zuen zelaian tokia galdu gabe eta 20. minutuan Ugartek berdinketaren gola egin zuen. Hiru minutu beranduago baina, Berio berriz ere aurreratu zen markagailuan. Lehen zatiaren amaieran, Roberto Idigorasek binako berdinketaren gola lortu zuen. Bigarren zatia ere antzera joan zen, joko aldetik berdintasuna izan zen nagusi eraso eta defentsan. Puntu banaketa beraz Azkoagainen.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Tolosa	15	6
2. Real Union	12	6
3. Hondarribia	12	6
4. Pasajes	12	6
5. Aloña Mendi	10	6
6. Hernani	10	6
7. Trintxerpe	9	6
8. Zumaiaiko	9	6
9. Aretxabaleta	8	6
10. Ondarroako Aurrera	8	6
11. Idiazabal	8	6
12. Berio	7	6
13. Euskalduna	7	6
14. Mondra	5	6
15. Mundarro	4	6
16. Vasconia	4	6
17. Anaitasuna	4	6
18. Amaikak bat	3	6

Emaitzak	
Aloña Mendi-Berio	2-2
Mondra-Pasajes	2-3
Tolosa-Vasconia	3-2
Mundarro-Real Union	0-2
Idiazabal-Hondarribia	0-5
UDA-Ondarroako Aurrera	1-1
Euskalduna-Amaikak Bat	1-1
Trintxerpe-Zumaiaiko	5-2
Hernani-Anaitasuna	1-1

Hurrengoak	
Anaitasuna-Berio	
Pasajes-AloñaMendi	
Vasconia-Mondra	
Real Union-Tolosa	
Hondarribia-Mundarro	
Aurrera-Idiazabal	
Amaikak Bat-UDA	
Zumaiaiko-Euskalduna	
Hernani-Trintxerpe	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA	
Bergara-Mondra	3-0
Antzuola-Eibartarrak	1-1
Anaitasuna-Aretxabaleta	1-1
Urola-BTLS	2-0

BIGAREN ERREGIONALA	
Gazteak-Bergara	2-1

OHOREZKO GAZTEAK EUSKADIKO LIGA	
SanMartzial-Aretxabaleta	1-1
Lengokoak-Bergara	3-1
Eibar-Aloña Mendi	3-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK	
Aretxab. Arizmendi-Mondra	0-3
Bergara-Eibartarrak	3-3

OHOREZKO KADETEAK	
Elgoibar-Arrasate	4-1
Aloña Mendi-Beasain	1-3
Aretxab. Arizmen.-Zumaiaiko	1-0
Bergara-Eibar	2-1

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK	
Soraluze-Aloña Mendi	2-0
Bergara-Aretxabaleta B	0-6
Arizmendi (Atsedena)	

OHOREZKO INFANTILAK	
Zumaiaiko-Bergara	0-0
Beasain-Aretxabaleta Arizmen.	1-2

LEHEN MAILAKO INFANTILAK	
Eibartarrak-Aloña Mendi	1-4
Amaikak Bat-Mondra	6-1

INFANTIL TXIKI	
Lagun Onak-Arrasate	0-1
Aretxabal. Arizmendi.-Elgoibar	2-1
Bergara-Eibar	0-2

EMAKUMEZKOEN LIGA	
Arizmendi B-Aloña Mendi	2-1
Mondra-Eibartarrak	3-0
Arizmendi (Atsedena)	

EMAKUMEAK F8 KADETEAK	
Beti Ona-Aloña Mendi	6-2

EMAKUMEAK F11 KADETEAK	
Mondra-Bergara	0-8

ALEBINAK	
Amaikak Bat-Bergara	2-5
Eibar-Arrasate	3-4
Aloña Mendi-Aretxabaleta	3-1

**KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK.*
BABESA ASEGURATUA.**

Zuretarrak beti ongi estalita egotea pentsatzen duzun baino errazagoa da **Kutxa Bizitza Aseguruarekin***. Zure egoera pertsonal eta ekonomikoetara egokitzen da. Eta konponbiderik egokiena da orain geroko kezkarik gabe bizitzeko.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Biharko
Vida y Pensiones
Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.

*Kutxa Bizitza-Asegurua, Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatua. Kutxa da Biharko Vida y Pensiones aseguru-etxearen banku-aseguruen operadore eskusiboa; honek baimena ematen dio hari Biharko aseguru-etxearekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro administratibo berezian inskribatua dago C0654G20336251 zenbakiarekin.



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziario berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



naturgas
energia

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Hondarribiaren defentsarekin arazoak izan zituen Mugarrik

Hondarribiarrek defentsa zabala erakutsi zuten eta arrasatearrek arazoak izan zituzten erasoan

Fisikoki oso egoera onean dagoela erakutsi zuen Ford Mugarrik eta horrek asko lagundu zien

FORD MUGARRI

25-25

HONDARRIBIA

GOIENKARIA > ARRASATE

Ford Mugarri Arrasatek partidu gogorra jokatu zuen zapatuan Iturripen. Goiko kategoriatik jaitsi berri den Hondarribiaren kontra borrokatu behar izan zuten. Arrasatearrendako berria eta ezezaguna zen defentsa erakutsi zuten hondarribiarrek; defentsa oso zabala eta kontak-

tu askokoa. Bosgarren minutuan Jonan Ezkibekek mina hartuta partidua utzi behar izan zuen. Arrasatearrek arazoak izan zituzten eraso egiterakoan. "Guretako arraroak diren defentsak egin dituzte. Erasoan oso gaizki ibili gara. Atzeratze momentuan, zenbaitetan gora begira harrapatu gaituzte defentsara jaitsi beharrean" azaldu zuen Edu Orgaz Ford Mugarriko entrenatzaileak.

Lehen zatia 10-13ko markagailuarekin bukatu zen. Aldageletatik bueltan arrasatearrek zenbait akats zuzendu zituzten, baina, hondarribiarrek defentsa



Partidu zaila jokatu zuten arrasatearrek Hondarribiaren kontra. JOSETXO ARANTZABAL

gogorrenekin jarraitu zuten. Dena dela, Ford Mugarrikoak fisikoki oso egoera onean daudela erakutsi zuten eta horrek beraien alde jokatu zuen parti-

duaren azkeneko minutuetan. Puntu bat gainera ipintzea ere lortu zuten arrasatearrek. Baina azkenean 25 puntuko berdinketarekin amaitu zen partidua.

> SASKIBALOIA

MU beste partiduetan baino hobeto, baina, garaipenik ezin lortu

Viajes Martil talde iruñarraren kontra jokatu zuen MUK domeka arratsaldean etxean. Beste partiduen aldean serio-tasun gehiago eta maila hobea erakutsi zuten Javi Zurbano-ren mutilek, baina, ezin izan zuten garaipenik lortu. 60 eta 82ko markagailuarekin konformatu behar izan ziren. Iruñarrak esperientzia gehiago erakutsi zuten, jokalaria ere nagusiagoak ziren-eta.

> ESKUBALOIA

Bergarak Urolaren kontra partidu eskasa jokatu zuen etxean

Gipuzkoako Eskubaloia Txapelketan ari da jokatzeko Bergara eskubaloia taldea eta partidu eskasa jokatu zuen domekan Urolaren kontra; 24 eta 29 galdu zuten etxean. Berdinketarekin joan ziren atsedena, baina, bigarren zatian Urolakoek dezente hobeto jardun zuten. Kontra erasoan gol pila bat egin zituzten Urola taldekoek.

> ESKUBALOIA

Aloñako senior mutilek irabazi eta neska jubentilek galdu

Aloña Mendi taldeko senior mailako mutilek partidu parekatua eta intentsua jokatu zuten Iñausti taldearen kontra atzo, domeka. Lehenengo zatian oso parekatuta ibili ziren, baina, bigarrenengo zatian aldatu eta garaipena lortu zuten (28-24). Gazte mailako neskek ez zuten horrenbeste zorte izan eta Kukullagaren kontra 13-26ko emaitzarekin galdu zuten.



Zenbait txirrindulari martxan parte hartzeko izena ematen. JOSETXO ARANTZABAL

IRTEERA > MENDI BIZIKLETAN

Partaidetza handia atzoko MTB martxan, Eskoriatzan

Antolatzaileak pozik agertu ziren parte-hartzea handia izan zelako; 250 lagun elkartu ziren

ARRITXU BARRUSO > ESKORIATZA

Eskoriatzan mendi bizikleta martxa egin zuten domeka goizean eta sekulako arrakasta izan zuen deialdiak. Guztira 250 pertsona inguruk hartu zuten parte mendira egindako irteera horretan. Bi ibilbide egin zituzten: luzeak 38

kilometro zituen, eta motzak, 27 kilometro. Azken honetan 100 lagun inguruk eman zuten izena. Guztiek amaitu zuten ibilbidea eta ez zen inolako arazorik egon; antolatzaileak oso pozik agertu ziren deialdiak izandako erantzunarekin.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
zurekin

BERGARA

Gogoz ibili ziren gaztetxoak defendatzen eta saskiratzen

SASKIBALOIA Labegaraietan zapatu goizean elkartu ziren gaztetxoek saskibaloia gustuko dutela adierazi zuten

LEHEN ORDUAN Partiduak goizean goiz hasi ziren, eta 09:30erako lau talde izan genituen kantxan zapatuan

NESKA-MUTIKO ASKO Aurtengo ikasturtean 350 neska-mutiko ibiliko dira zapatuetan kirol ezberdinak egiten

JASONE ZABALA > BERGARA

Denboraldiko bigarren jardunaldia zapatuan izan zuten Bergarako eskola kiroleko gaztetxoek. Benjamin eta alebin mailetan banatuta saskibaloian jardun zuten Labegaraietako kiroldegiko barruko kantxan. Guztira bederatzita partidu izan ziren bertan, Antzuola, Elgeta eta Bergarako gaztetxoekin. Bertako kantxa hiru saskibaloia kantxatan bihurtu zuten eta 09:30ean hasi ziren lehen partiduak. Goiz izan arren, gogotsu ibili ziren jokalariek guztiak.

LEHENENGO PARTIDUAK

Mutilen lau taldek jokatu zuten lehen orduan: Mariaren Lagundia B eta Antzuola A batetik, eta Aranzadi 3 eta Antzuola B bestetik. Saskibaloia talde lana denez, taldeki-deek elkarrizkeria ederki pasatzen zioten baloia, behin saski ondora helduta baloia jaurti eta saskiratzeko. Talde bakoitzaren ardura gurasoak zeukaten, eta beraiek jardun zuten entrenatzaile lanetan (astero txandakatzen dira).

HAMAR KIROL ETA 350 NESKA MUTIL

Aurtengo ikasturtean hamar kirol ezberdin inguru landuko dituzte eskola kirolean dabilen 350 neska mutikoek: irristaketa, saskibaloia, futbola, pilota, igeriketa, piraguismoa, sare jolasak, eskubaloia, beisbola eta bizikleta. Leire Zamakola Bergarako Eskola Kiroleko ardura-dunaren arabera "kirol batzutan egun bateko saioak egingo dituzte, piraguismoan eta bizikletan esaterako".



JASONE ZABALA

Antzuola B. Aritz Kortabarria, Endika Cobo, Xabi Iparragirre, Mikel Arregi, Ander Fernandez, Xabi Martin eta Unai Kortabarria.




JASONE ZABALA

Antzuola A. Dean Ihnadesin, Jon Etxezarreta, Ander Aranburu, Iker Gardoki, Facun Jimenez eta Jon Mata.



JASONE ZABALA


Mariaren Lagundia B. Ezkerretik eskumara, goiko ilaran: Aitor Zurro, Jon Agirre, Josu Dominguez, Alex Paton. Beheko ilaran: Asier Calvo, Urko Sarobe eta Josu Erdabide.



JASONE ZABALA

Aranzadi 3. Mikel Edroso, Iker Elizburu, Mikel Momoitio, Alex Arteaga, Mikel Sanchez, Josu Gorriti, Iker Gorriti, Andoni Mujika, Iker Osinaga eta Mikel Gallastegi.

ZERGATIK DUZUE GUSTUKO SASKIBALOIA?



Mikel, Mikel eta Alex
Aranzadi 3

Saskibaloia polita eta dibertigarria dela esan digute Aranzadi 3 taldeko hiru mutil horiek. Hala eta guztiz ere, futbola da gehien gustatzen zaiena, eta errazagoa ere badela aitortu digute hirurek. Entrenamendu saioak martitzen eta eguenetan egiten dituzte Seminarioan multi kirolak egiten dituztelako bertan.



Xabier eta Xabier
Antzuola B

Antzuolako bi gaztetxoei asko gustatzen zaie saskibaloia, batez ere "korrika asko egin behar den kirola delako", esan digute bietan. Hala eta guztiz ere, bi horiek, aurrekoek moduan, gustukoago dute futbola, nahiago dituztelako oinek egindako jaurtiketak.



Jon eta Asier
Mariaren Lagundia B

"Askok gustatzen zaigu saskibaloia, lan taldea futbolekin baino gehiago egiten delako bertan". Futbola eta saskibaloien artean futbolarekin gelditzen dira biak, gehiago atsegin dutelako. Hala eta guztiz ere adierazi digute ez dela kirol zaila eta erraza dela jolasteko.



Mikel, Iker, Mikel eta Josu
Aranzadi 3

Aranzadi ikastolako hiru mutilek futbola eta saskibaloia antzera gustatzen zaie. Saskibaloian korrika asko egin behar dela esan digute, eta denetan zailena hirukoak sartzea dela. Hala ere, beste edozein kirol ere gustuko dute eta oso pozik etortzen dira kirola egitera.

Antxon Artza > Piraguista

"Kirolean zein enpresan koordinazioa, kohesioa eta batasuna beharrezkoak dira"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Antxon Artza kayakista nafarrak *Hiritik kanpo* izenburuko hitzaldi-proiektzioa eskaini zuen egubakoitzean Bergarako Aroztegi aretoan, Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan. 2000. urtetik erroberagurpil-aulkian ibili arren, mendian, bizikletan edo ibaiak jaisten jarraitzen du. "Aulkia buruan ez baduzu eramaten, ez dago oztoporik" dio Artzak.

Gaurko hitzaldian, nora joan baino garrantzitsuena norekin joatea dela azpimarratu duzu.

Bai, hala da. 2000. urtean Venezuelako istripuak beste ikuspegi bat eman zidan. Zorionez, momentu hartan lagun onak, momentu kritiko hartan zer egin eta nola egin asmatu zutenak izan nituen alboan eta beraiei esker nago gaur hemen. Bizkarreko bi orno hautsi nituen istripu hartan eta mugimendu egokiak egitea funtsezkoa zen ni handik bizirik ateratzeko. Harremanak oso inportanteak dira eta bidaiatzean zer esanik ez. Bidaia-lagunak egokiak aukeratzea ezinbestekoa da.

Gaur egun exekutiboekin zuzendutako hitzaldiak egiten dituzu, talde lanaren garrantzia azpimarratuz.

Sebastian Alvarok, *Al filo de lo imposible* saioko zuzendariak galdetu zidan ea interesa nuen horrelako hitzaldiak egiteko. Betidanik egin izan ditut hitzaldiak eta proiektzioak baina hau gauza berria zen niretako. Azkenean, bi aldiz pentsatu ondoren, animatu egin nintzen Thinking Heads enpresan parte hartzen. Aurrekoan Coca-Cola enpresako gestio talde batekin izan ginenean, orientazio proba bat eta bestelako ariketa batzuk egiten. Enpresa handietan aholkulariak, giza baliabideen zuzendaria eta horrelako postuak dituzte eta helburua beti da bera: taldearen kohesioa, batasuna eta koordinazioa bilatzea beraien objektiboak gauzatu ahal izateko. Objektiboak erreala izan behar dira beti. Gure kasuan, kirola egiteko orduan ere, gauzatu daitezkeen objektibo batzuk bilatzen ditugu eta talde lanean oinarritzen gara hori lortzeko. Alde horretatik, gure esperientzia baliagarria zaie.

"Venezuelako istripuan, bidaia-lagunak oso ondo gertatuta egoteari zor diot bizia"

"Hegoak moztu zizkidan istripuak baina ez burua; gauzak egiten jarraitzen dut"

Eta zein izaten da talde lana huts egiteko arrazoia?

Enpresa mailan kompetentzia izugarria dago zenbaitetan, lankide beraien artean askotan. Ez dugu dena ematen, mesfidantzagatik askotan. Beti dago nolabaiteko beldurra: "Ondokoari dena erakusten badiot, bera izango da etekina aterako duena eta ondorioz ni izango naiz kaltetua epe luzera". Horren moduko pentsamenduak izaten ditugu. Kirolean, ordea, ondokoa zenbat eta hobeto prestatuta egon, niretako hobe. Nire kasuan, adibide argiena istripua izan nuenekoa da. Orduko bidaia-lagunak oso ondo gertatuta egoteari zor diot bizia.

Gaurko hitzaldi-proiektzioa gainera argi laga duzu ez dagoela oztoporik aurrera egiteko.

Hegoak moztu zizkidan Venezuelako istripuak baina burua ez eta gauzak egiteko ametsetan jarraitzen dut. Aulkia buruan ez baduzu eramaten, aurrera egin dezakezu. Aulkian egotea zailtasuna da, baina ez eragozpena, inondik inora. Orain jendearen laguntza behar dut, eta gauza ederra da lagunaren laguntzarekin naturaz gozatzeko jarraitzea. Gaurko emanaldira ere Arrasateko aspaldiko lagun batzuk etorri dira eta pozgarria izan da haiek ikustea.

Orain quad-arekin zabilta buru-belarri, ala?

Bai. Quad motorrak ate asko zabaldu dizkit. Lehen oinez joaten nintzen tokietara, eta orain quadari esker badut toki horiekin gozatzeko aukera, elurrean, mendian. Beti ere mendizaleak errespetatuz, noski. Marokon zehar hiru bidaia egin ditut quad-arekin eta azaroran berriro joango gara hara. Aukera paregabeak eskaintzen ditu Marokok: desertua, mendiak, hango jendea... Gainera, hegaldi merkeak daude gaur egun Marokora joateko.

Txile, Pakistan, Zeelanda Berria, Zimbabwe, Nepal edo Txinako irudiak erakutsi dituzu. Bost kontinentetan ibilitakoa zara. Tokirik kuttunena?

Zaila da bakarra aukeratzea, baina beharbada Nepalekin gertuko nintzateke. Hango jendea berezia da oso; ez daukate ezer, dena ematen dizute eta gainera oso alaiak dira. Paisaiaren ikuspuntutik ere toki zoragarriak daude han.

***Al filo de lo imposible* saioarekin kolaboratu duzu eta badirudi saioa desagertzearekin dela.**

Ikusteko dago. Jende batek utzi egin du TVE eta geratzen direnek ea jarraipena ematerik daukaten... Pena litzateke horrelako saio gutxi daudelako. Ondo saldu izan duten saioa izan da gainera.



Antxon Artza kayakista nafarra, Txinan hartutako irudi baten.

Oztopoak gainditzeko asmatu duen abenturazalea

Antxon Artza (Iruñea, 1962) ibilbide luzeko abenturazalea da. Mendian, eskalatzen eta eskiatzen hasi zen oso gaztetan eta 1984an Nepalen tifusa jasan ondoren, piraguarekin hasi zen, besoak indartzearen bati bat, gaixotasun hark nabarmen ahuldu zuen-eta. Hain zuzen ere, piraguarekin izan zuen paraplegiko utzi zuen istripua, 2000ko azaroran. "Arrisku handiko momentutan buruak ezetz esaten badizu, atzera egiten duzu. Baina Venezuelako jauzi hartan Patxi

laguna joan zen nire aurretik eta hasiera baten ez zegoen arriskurik. Baina gorputzak atzera egin zidala pixka bat eta haizearen eraginez plano erori nintzen 12-15 metroko jauzi batetik. Ondoren, momentuko egoerara egokitzen jakitea da kontua". Lekukoa hartzeko gertu dauden gaztetxoak badaude. Aroztegi emanaldian, 9 urteko neskatila batek hainbat galdera egin zizkion Artzari ausardia osoz eta zera bota zion gero: "Handitan igual piraguista izan nahi dut eta...".



DAGOENEKO SALGAI

DVDa eta CDa.

Danbaka Musika Lehiaketako 2. edizioko **20 taldeen abestiak eta ikus-entzunezkoa.**

Estrak, argazkiak, bideoak...

13 euro

ESKAINTZA BEREZIA: Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunendako **10 euro.**

Hemen salgai:

ARRASATE

Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

BERGARA

Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

ELGETA

Espaloia kafe antzokia: Maala 2. 943 78 90 85

DANBAKA))))



> **THE COMMITMENTS**
The Commitments musika taldearen Elgetako emanaldiaren kronika > 26



> **ORGANO ZIKLOA**
Loinatz aabesbatza eta Gerardo Rifon San Pedron, organo zikloaren barruan > 26



> **MUSIKA**
Aggressive Combat talde arrasatearrak bigarren diskoa grabatu du: 'Survive' > 27

Ezpainetan ezitia ipini eta gero, infernuko sutan erre

Mery May bakarlariak sorginduta hasi zen gaua baina liluratik iratzartzeaz Damudotekoak arduratu ziren berunezko mailukadekin

The 5 twistersen zurrunbiloek ikuskizuna eman eta Ymotekekoen infernu atarian utzi gintuzten

Hasi da Danbaka eta lehen apustuak egiten hasteko moduan dago lehiaketa aurten ere

JON BEREZIBAR > ELGETA

Eztiarekin tentatuta hasi, rockaren izerdia azalean tartean eta amaitzeko infernuko ateetan bertan bukatu zen egubakoitzean Danbakako lehen saioa. Ezitia, izerdia, poseak eta infernuko garrak izan ziren gaueko osagaiak. Atzera ere lehen saiotik lehia goi goian da.

IRLANDAKO EZTIA

Ezin modu eztiagoan hasi zen Danbaka III. Lehiaketa. Gitarra alboan eta ahots goxoarekin, ikusleak laztanduta ordu erdi bateko saio liluragarria egin zuen Mery Mayk. Gaztea da, baina ez erraz kikiltzekoa eta abesti landu eta sentiberekin poltsikoan berehala sartu zituen ikusleak. Harritzekoa ere erakutsi zuen eta naturaltasuna eta gaueko txalo beroenak hark jaso zituen.

LABELDUN HEAVYA

Eta bakarlariaren ezitik, Mallabiko berunera. Gitarra astunak, punteo zorrotzak eta Su Ta Garren oinordekotzarekin heavy zaleek aitzakiarik izan ez zuten emanaldia egin zuten Damudotekoek. Euskal Herrian euren musikak leku handia dauka eta eremu horretan eroso mugitzen dira mallabiarrak. Alde horretatik ezusteko gutxi baina egindakoa bikain egin. Agertokia piztea falta zitzaie, gar apur batzuk. Hala ere, indarra, gogoia eta izerdia, izerdi asko.

SHOWA BERME MODUAN

Zurrunbiloak bezala iritsi eta joan zen The 5 Twisters; tartean, erritmoa, rock-and-rolla eta jarre-

ra zein pose bilduma lagata. Errealidaren bila etorri dira eta bigarren apustu honetan talde trinkoagoa eta ikuskizun grina bikaina ekarri dute. Teknika eta abilezia aurretik ere bazeukaten eta ondo frogatuta gainera.

INFERNUKO ATEETAN AMAIERA

Infernuko ateak parez pare Elgetan eta Ymoteken burdinolak jo eta su lanean. Inor logura bazen, ohera joateko gogoak berehala uxatu zizkioten abadiñoarrek. Hormak dardarka eta eten bari-ko saioa egin zuten. Metalak ez du atsedetik permititzen eta burua astindu ez zuenak, barkamenik ez. Errukirik gabeko metal danbatoek, bata bestearen ostean eta ikusleak gozarazteko asmo bete nabarmenak izan ziren.

IKUSLEAK ETA GIROA

Zurrunbiloek ekarri eta metalak uxatu

Ia betetea ikusi genuen Espaloia Danbakako lehen saioan. Ikusle gehien The 5 Twistersekoek erakarri zuten eta horien ostean Ymotekekoek uxatu zituzten asko eta asko. Gaueko proposamenik muturrekoena abadiñoarrena izan zen-eta. Hala ere, ezin ahaztu aurreko edizioako garaileak Aby-Kemekoak ditugula eta Ymoteken kontzertuan burua astindu eta astindu ikusi genituen egubakoitzean, Elgetako Kafe Antzokian. Lehen saioa oso txukuna izan da, taldetik taldera gutxi itxaron behar izan genuen eta antolaketa aldetik bikain.



THE 5 TWISTERS Zurrunbiloa bezala iritsi zen boskotea. Jokin Vitoria abeslaria energi-az beteta igo zen eszenatokira.



MERY MAY | Arrasate

Adituak esana > Mikel Kazalis (Anestesia)
"Nik beti mirestu izan dut gitarra soil batekin eszenatokira atera ahal izatea; distortsio eta watioen eskolakoa naiz-eta. Jarra oso positiboa ikusi diot neskari, freskoa eta espontaneo; oso ondo ikusi dut agertokiaren gainean. Ezin hobeto moldatu da."

Ikusleek esana > Mikel Narbaez (Bergara)
"Oso ondo, asko gustatu zait, benetan gustura entzun dudana saioa izan da. Atentzioa eman dit duen ahots berezi eta goxoak. Desberdina da, beste taldeekin alderatuta, neska oso gaztea da baina oso lasai ikusi dut. Laguna atera duenean, bi ahotsen arteko jokoa asko gustatu zait."

Kazetariak esana > Jon Berezibar
"Agertokian egin duen lehen urratsetik erakutsitako segurtasunak txundituta utzi nau. Ahotsak berehala harrapatzen zaitu eta abesti politak, oso entzungarriak dauzka. Lehenengo unetik gainera ikusi da parean artista bat geneukala. Esan daiteke guztia daukala bakarlari honek."

Bakarlariak esana
"Oso gustura amaitu dut. Kanpotik segurtasunarekin nindoala eman zezakeen arren, urduri nengoan, halere. Hainbeste jenderen aurrean jo dudana lehen aldian izan da baina gustura jardun dut. Labur egin zait, beraz disfrutatu egin dudala esan gura du horrek."



DAMUDOT | Mallabia

Adituak esana > Mikel Kazalis (Anestesia)
"Heavy klasikoa da, Euskal Herrian dagoeneko nahikoa hedatua dagoena; bere garaian Latzen eta Su Ta Garrek irekitako bideari jarraituz. Abestien exekuzioa oso ona izan da baina jarrera puntu hori sumatu dut faltan. Egia da hiru lagunekin soilik zaila dela agertokia betetzea."

Ikusleek esana > Mikel Narbaez (Bergara)
"Nahiko ondo hauek ere. Musika estiloa ere asko gustatzen zait. Errepertorioa oso ondo prestatua ekarri dute eta agertokian ere oso jarrera onarekin ikusi ditut. Musika *kañeroa* egiten dute eta asko gustatu zait batera jotzailea. Presentzia handia dauka hark taldearen barruan."

Kazetariak esana > Izena Abizena
"Eskolarik falta ez zaiela nabaria izan da baina eraginetatik kanpo saio txukuna eta indartsua egin dute. Alde tekniko kontrolpean daukate eta taldea ere trinko ikusi da. Agian agertokia bereganatzean izan dituzte zailtasunak baina hiru kiderekin ere gaitzagoa izaten da."

Taldekidetok esana
"Kristona izan da; errepikatze modukoa. Jendea gurekin egon da denbora gutxian. Ez da lehiaketa baten parte hartzen dugun lehen aldian baina hona ere irabazteko baino, jotzeko etorri gara. Jende berria dabil hemen eta guk ere aukera hori aprobetxatu gura dugu."



THE 5 TWISTERS | Arrasate

Adituak esana > Mikel Kazalis (Anestesia)
"Rock-and-roll oso klasikoa da eurena, modu txukun eta apainean egin dute, baina oraindik buelta bat falta zaiela iruditzen zait: *ostia* txar apur bat. Hori kritika moduan-edo utziko nukeena, ze beste taldeak oso ondo jardun du."

Ikusleek esana > Mikel Narbaez (Bergara)
"Gustura ikusi dut, musika oso desberdina egiten dute. Eszenatokian oso trankil ikusi ditut eta azpimarratzeko abeslariaren keinu eta oholta gaineko zorakeriak. Horrekin asko daukate irabazita. Agian azken honekin geratuko nintzateke zerbait nabarmenzerakoan. Bere neurrian, ez oso ondo, ezta oso gaizki ere."

Kazetariak esana > Jon Berezibar
"Ezin uka agertokiaren jabe egin eta show gura duten moduan eroateko gauza direla. Gustura ikusi zaie eta ikusleei ere ikuskizun bete eman diete. Hori aurrekoan ere frogatu zuten baina oraingoan trinkoago eta talde moduan osatuago etorri dira. Akats gutxiko saioa izan da teknikoki eta taldea asko findu da aurreko Danbakatik."

Taldekidetok esana
"Oraingoan ere oso gustura ibili gara. Gogo askorekin geunden agertokira igotzeko eta energia handiarekin irten gara. Gustura gaude irtendakoarekin eta pozik oraingoan ere."



YMOTEK | Abadiño

Adituak esana > Mikel Kazalis (Anestesia)
"Zentzu guztietan harritu naute. Egia da ere estilo aldetik gertukoago zaizkidala baina teknikoki ere oso fin ikusi ditut. Horrez gain, jarrera aldetik gaueko onenak izan dira."

Ikusleek esana > Mikel Narbaez (Bergara)
"Oso oso indartsuak, potenteak. Ikusleekin harreman asko izan dute. Maila oso ona, musika aldetik oso tekniko eta uste dut finalerako aukera ona izan daitekeela. Taldea oso trinkotuta ikusi dut eta horrek, zelan ez, indarra ematen dio. Kontutan hartuta aurreko taldeekin baino jende gutxiago egon dela, zeudenak ondo konbentzitzera heldu dira."

Kazetariak esana > Jon Berezibar
"Hasiara baten sartzea kostatu bazaie ere erditik aurrera mamia hartu eta une oro saiatu dira ikusleak bereganatzen. Ikusi da jarraitzaileek goza zezatela saiatu direla eta hori oso garrantzitsua da. Horrek puntu asko eman dizkie eta baita ere soinuaren indar ikaragarriak eta teknikoki erakutsi duten maila ona. Atsedetik ez dute hartu une baten ere ez."

Taldekidetok esana
"Lehiaketa izate horrek *handicapa* erantsen dio kontzertuari baina gustura ibili gara. Urduri irten gara eta horrela gehiago kostatu zaigu sartzea baina azkenean lortu dugu sartzea."



Usoa Agirre/Mainer Arregi

Dotore hasi da aurtengo edizioa

Danbakako lehen kontzertua eta urduri geunden denok, lehenengo noiz hasiko zain. Hainbeste egunez prestatzen aritu ondoren, zerbait huts egingo ote zuen beldur ginen, baina ederki joan zen dena.

Mery May entzuteko gogoa bagenuen. Telebistara etorri zenean eskaini zigun abestiarekin txundituta utzi gintuen eta zuzenekoan ez zuen hutsik egin. Aita eta ama ere gustura utzi zituen; irriparez irten ziren.

Kantak *Danbaka.com*-en entzun edo zuzenean ikusi, alde ederra dago. **Damudot** heavyek bat baino gehiago aho zabalik utzi zuten. **Su Ta Garren** jarraitzaileek gustuko izango dute, segurua. **The 5 Twistersekoak** ezagunak genituen eta igarri dugu pasa den ediziotik oraingora egin duten aldea. Dantzan jarri gintuzten. **Ymotek** abadiñoarrekin eszenatokia leheratu egin zen ia.

Aby-Kemekoak ere bertan ziren, seguru emaldiarekin disfrutatu zutela.

Mikel Kazalis ere hemen izan genuen. Mutil jatorra benetan. Txantxa bat baino gehiago aguantatu behar izan zuen afaltzen eta taula gainean. Hurrengo kontzertura arte!

Urriaren 31n


- > Ni Neu (Eibar)
- > Scam (Aretxabaleta)
- > Lord Witch (Bergara)
- > Adi Holden (Bergara)



Ymotek talde abadiñoarrak Espaloira joandakoak makurtzea lortu zuen. Ikusleekin konplizitatea lortu zuten.



Mainer Arregik jardungo zuen aurkezle lanetan.



The 5 Twisters taldekoak.




Damudot-eko baxua.



Damudot taldeko bateria jotzailea.




Mainer Arregi eta Kazalis.



The 5 Twisters taldeko abeslaria.



Mery Mayk bere lagun Amajarekin bi ahotsetara abestu zuen.



Ymotek taldea.

Publikoaren Saria

Eman zure botoa, kontzertuko sarreraren atzealdean zure gustuko taldea aukeratu.

- 1 THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %39,56
- 2 MERY MAY**
ARRASATE
Botoen %28,57
- 3 DAMUDOT**
MALLABIA
Botoen %21,98
- 4 YMOTEK**
ABADIÑO
Botoen %4,39
- 5 HILBETE**
DURANGO
Botoen %2,20
- 6 THE MOTHERFUCKERS**
ARRASATE
Botoen %1,09
- 7 NI NEU**
EIBAR
Botoen %1,09
- 8 BITTER HONEY**
ARRASATE
Botoen %1,09
- 9 SCAM**
ARETXABALATA
Botoen %0
- 10 LORD WITCH**
BERGARA
Botoen %0
- 11 ADI HOLDEN**
BERGARA
Botoen %0
- 12 LOS VIERNES AL RON**
ANTZUOLA
Botoen %0
- 13 ARMY-ARMA**
ZORNOTZA
Botoen %0
- 14 BRANKAN**
BERRIZ-MARKINA
Botoen %0
- 15 FOXY BOXXY**
ARRASATE
Botoen %0
- 16 IGOR SAN JUAN**
ARETXABALATA
Botoen %0
- 17 NORMAN**
EIBAR-ONDARRU
Botoen %0
- 18 FLIPIN FOLK**
ERMUA-EIBAR
Botoen %0
- 19 ROCK PRIVADO**
OÑATI-DONOSTIA
Botoen %0
- 20 THE WET BAND**
MUTRIKU
Botoen %0
- 21 TURBOSHIT**
BERGARA
Botoen %0
- 22 BARUA BANDA**
ESKORIATZA
Botoen %0
- 23 TUESDAY EVENINGS**
DURANGO
Botoen %0
- 24 REVELPHONE**
SORALUZE
Botoen %0

HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

ARANTZAZU URIBESALGO
Arrasate

"Danbakaren aurreneko bi edizioak ere jarraitu genituen. Nire ilobak talde baten jotzen du eta eurak animatzearen etortzen gara beti. Aurreko urteetan oso ondo egon zen lehiaketa. Gainera, oso ondo iruditzen zaizkit Danbaka bezalako ekimenak".

JON KORTABARRIA
Oñati

"Mery Mayren kontzertua oso ondo egon da. Oso lagun ona dut eta asko gustatu zait eman duen kontzertua. Eszenatokian bakarrik egote hutsagatik ere meritua gehiago dauka. Foxy Boxy taldea ikusteko gogoa ere badaukat; etorriko niaz euren kontzertura".

MIKEL GAUGER
Eibar

"Lau taldeak ikusteko gogoa geneukan, baina, batez ere Damudot ikustera etorri gara. Orain arte ikusitakoa asko gustatu zait. Ni Neu taldea eta The Wet Banda ikustera ere etorriko gara seguruenik. *Danbaka.com*-en ere egingo dugu jarraipena".

JOANNE URIARTE
Zaldibar

"Danbakara etortzen naizen lehenengo urtea da. Damudot ikustera etorri naiz; asko gustatzen zaizkit eta gaur ere oso ondo egon dira eszenatoki gainean. Egia esan oso ondo dago lehiaketa hau. Uste dut horrelako gehiago egin beharko lirakeela".

RUBEN ARRONDO
Bergara

"Danbaka edizio guztietan jarraitu dut. Gaurkoan ez naiz talde konkretu bat ikustera etorri, baina, oso ondo egon da guztia. Mery May asko gustatu zait; ahots berezia dauka, desberdina. Los Viernes al Ron ikustera ere etorriko naiz".

KONTZERTUA > THE COMMITMENTS ELGETAN

Espaloian musika beltzaren jai arrakastatsua zapatu gauean

I.F.AZKARATE 'XARRA'

Ederto gozatu zuen zapatuan Elgetako Espaloira hurbildu zen jendeak. Musika beltzaren kantu sorta ezaguna entzuteko eta disfrutatzeko parada izan zen bertan The Commitments talde irlandarraren eskutik.

Errepertorioa 60ko hamar-kadako soul amerikarrari egindako omenaldi beroa izan zen eta arrakasta horietatik 20 bat kantu inguru eskeini zituzten irlandarrek.

Musikariak gogotsu hasi ziren Blues Brothers modura Little Miltonen *Grits Ain't Groceries* kantuarekin entzulegoaren arreta segituan euren gaituz. New Orleanseko funka inguratu zuten *I Thank You Sam & Daveren* kantuarekin. Luze gabe ahotsak bildu zituzten Aretha Franklinen *Chain Of Fools* abestiarekin, jendearen partaidetza eskatu zuten Otis Readingen *The Fa fa sad song*-ekin eta *Hard to Handle* kantuekin gailurra lortu zuten. Ondo atera zitzaiz-

kien soularen iparralderanzko txangoak: Martha & The Vandellasen *Nowhere To Run*. James Brownen izpiritua ere bertan zegoen.



Taldeko abeslarietako bat.

J.A.

Kontzertuak bi zati izan zituen, tartean tragoa hartzeko etena eginez; entzulegoa pozik eta irrifartsu. Espaloia jendez beteta zegoen.

Bigarren partean berriro ere The Commitmentsek bere onena erakutsi zuen. Wilson Picketten *In The Midnight Hour* jo zuteneko jaia bete bete zegoen Espaloian. *Munstang Sally* eta *Mr. Piti-ful* kantuekin jendea mugimenduan eta dantzan hasita zegoen. Irlandarrek ez zuten huts egin gai zailetan, rocka jo zuten; Al Green handiaren *Take Me To The River* eta bukatu baino lehen Rare Earth taldeak ezagun egin zuen *Get Ready* kantuaren bertsioarekin harritu gintuzten.

Baina horrekin ez zuten nahikoa izan entzuleek eta berriro atera behar izan zuten *Land of 1000 dances* ezagunarekin bukatzeko.

Taldea trinko aritu zen hiru abeslariak tartekatuz: morroskoa atsegin eta hiztun ibili zen. Bederatzi musikarien artean Alan Parkerren filmean agertutako bi ziren -gitarra-jotzailea eta bateria-, oso ondo egin zuten euren lana: base erritmikoa indartsu, hammond soina eta haizeak trebeak beraien lanean.



The Commitments taldeak musika beltzez bete zuen Espaloia.

JOSETXO ARANTZABAL

Dantza egon zen taula gainean eta behean, teknikariak eta bertako langileak ere harrapatu genituen horretan. Soinu akatsgabeak ederto lagundu zuten. Horrelakoak izango balira berbenak, plazak beteta

izango genituzke herrietan. Zapatu normala izan behar zena sekulakoa bihurtu zuten irlandarrek. Bertako paisaia eta janariarekin disfrutatu zuten eta guk euren musikarekin. Aje barik.

Rifon organistak Loinatz abesbatzak lagunduta jo zuen

Bergarako organo erromantikoa- ren zikloaren barruan, zapatuan, Gerardo Rifon organo-jotzaileak kontzertua eskaini zuen Beasaingo Loinatz abesbatzak lagunduta. Momentu politena izan zen Rifonek Felipe Gorritiren meza jo zuenean. Gorriti Tolosako organo jotzailea izan zen eta Tolosako organoa Bergarakoaren berdina izanda oso dotore geratu zen Gorritiren pieza hori.



JOSETXO ARANTZABAL

> ERAKUSKETA

Mari Paz Alustizaren margolanak ikusgai daude Aroztegin

Gaztetatik margotzen jardundu du Mari Paz Alustiza bergararrak eta urte hauetan guztietan egindako lanak erakutsi nahi izan ditu orain. Aroztegi aretoan ikusi ahalko dira azaroaren 2ra arte bere arte-lanak. Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik Aroztegi aretoa; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era, eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Markiegi

A R R A S A T E

Olarte 2 Tel.: 943 79 15 32
<http://goiena.net/blogak/markiegi>





Irudian, Aggressive Combat taldeko kideak, promoziorako irudi baten. Zuzenean jotzeko irrikaz daude arrasatearrak.

AGGRESSIVE COMBAT

"Bakarrik bost kanta grabatu ditugu, baina kalitate onekoak"

Oi! eta streetpunk-a lantzen du Aggressive Combat taldeak bigarren diskoan; dagoeneko salgai jarri dute ibarreko hainbat tabernatan

Bost kanta grabatu dituzte 'Survive' diskoan: lau eurek idatzitakoak, eta bosgarrena Cock Sparrer taldearen 'I've got your number' kantaren bertsioa

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Arrasateko Aggressive Combat taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du. Dagoeneko salgai jarri dute oi! eta streetpunk-a musika duen lana. Taldeko kideekin egin dugu berba *Survive* diskoaren inguruan.

Taldearen bigarren diskoa kaleratu duzue. Nolako da?

Survive diskoan bost kanta bildu ditugu: lau guk idatzi ditugu; hain zuzen ere, *Anybody cares*, *Pub stories*, *Everybody is looking* eta *False winners* izenekoak; eta bosgarrena, Cock Sparrer taldearen *I've got your number* kantaren bertsioa da.

Gainera, bideoklip bat egin dugu; baina, arazo tekniko batzuegatik ordenagailuz bakarri ikus daiteke.

Nolako musika entzungo du diskoa erosten duenak?

Gehienbat oi! eta streetpunk estiloa lantzen dugu. Ingalaterrako oi! musikaren eragina dugun arren, gure estilo propioa lantzen ahalegintzen gara.

Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?

Ingalaterrako taldeen eragina dugu; batez ere, oi! eta streetpunk taldeen eragina; besteak beste, Cock Sparrer, 4skins, Section 5, Argy Bargy eta The Business taldeak.

Era berean, Euskal Herriko taldeen erreferentziak hartzen ditugu; besteak beste Zakarrak, Puñetazo, RIP, Vomito eta Cicatriz bezalako taldeen musika gustatzen zaigu.

Ze ezberdintasun dago lehen diskoarekin alderatuta?

Hainbat aldaketa daude: alde batetik, bigarren diskoa motzagoa da: lehenengoan hamar kanta grabatu genituen, eta oraingoa bost bakarrik. Beste alde batetik, kanta guztiak ingelesez abesten ditugu, eta lehen diskoan euskaraz ere abesten genuen. Gainera, beste diskoetxe batean nahastu dugu. Azkenik esan, bigarren diskoak kalitate hobea duela soinu aldetik.

Zertan oinarritzen zarete kantak idazterako orduan?

Orokorrean, bizitzan izan ditugun esperientziei buruzko letrak idazten ditugu; besteak beste, bakardadeaz, adiskidetasunaz eta hainbat gairi buruzko kritikak egiten ditugu. Hain zuzen ere, *False winners* kantan langile mugimenduen batasun faltari kritika egiten diogu.

Nork idatzi ditu kantak?

Bertsioa izan ezik, kanta guztiak Mikel Marañoek idatzi ditu.

Nortzuk zarete Aggressive Combateko kideak?

Bost kide gara taldean: Jon Nevado, bateria-jotzailea; Aritz



Ordenagailuan ikusteko bideoklipa

Disko laburra grabatu dute arrasatearrek. Hain zuzen ere, bost kanta eta ordenagailuz bakarrik ikus daitekeen bideoklipa ditu. Kantitatea alde batera utzi, kalitatearen aldeko apustua egin dute. Oi! eta streetpunk musikazaleek gustura entzungo dute *Survive* diskoa.

Bost kanten hasierako doinuak indartsuak dira, eta Mikel Marañoen ahotsak ukitu berezia ematen die abestiei. Cock Sparrer taldearen *I've got your number* kantaren bertsioan taldearen ezaugarriak antzeman daitezke.

Mireia Bikuña

Mauri, baxua; Ander Arnaiz eta Iurgi Duque, gitarrak eta Mikel Maraño, ahotsa.

2003. urtean taldea sortu genuenean lau kiderekin hasi ginen; baina, berehala Iurgi hasi zen gitarra jotzen. Hortaz, aldaketa gutxi eduki ditugu taldean.

Non grabatu duzue bigarren disko hau?

Bigarren lana Azpeitiko Lobo Estudioak diskoetxean grabatu dugu; hain zuzen, Josu Zubizarretak egin digu grabazioa. Ondoren, nahasketak Donostiako Dr. Masterren egin dizkigu Estanisek.

Diskoaren grabazio prozesua luzea izan da?

Nahiko azkar egin genuen guztia. Musika eta ahotsa hiru egunetan grabatu genuen. Ostera, nahasketa egiteko denbora gehiago erabili genuen, bideoklipa sartzeko orduan formatu eta kalitate aldetik arazoak izan genituen-eta.

Kontzertu asko dituzue lotuta?

Batzuk lotu ditugu, baina gehiago behar ditugu diskoaren aurkezpena egiteko.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. 75 metro koadroko etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Hiru logela, trasteleku eta aarropak eskegitzeko. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkaleku. Eguzkitsua eta leku lasaian, Berritua eta egoera onean. 198.000 euro. 943 76 07 50.

Elgeta. Duplexa salgai. Hiru logela eta bi bainugela. Moderno eta erosoak. Behoko sua. Guztiz jantzia. 210.000 euro. 685 75 18 91.

Oñati. 116 metro koadroko duplexa salgai erdigunean. Lau logela, sukaldia, bi komun eta egongela. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

Oñati. 79 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldia, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

Soraluze. 85 metro koadroko etxebizitza salgai Rekalde kalean. 12 metro koadroko ganbarekin. 943 75 10 39 edo 943 78 21 52.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Zerrajerka kalean etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. 646 81 03 35.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Oso ekonomikoa. Hiru logela eta egongela. Bikote edo ikasleentzat egokia. Jose Angel eta Laura. 615 74 32 79 edo 696 79 43 88.

Esakoriatza. Baserria ematen da errentan. 693 35 89 02.

Oñati. Etxea ematen da errentan ikasle edo irakasleentzat. Lau logela eta bi bainugela. 686 40 82 00.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote arduratsua eta garbiak etxebizitza txikia har-tuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

Arrasate. Etxebizitza txiki bat hartuko nuke errentan. 605 73 90 03.

Bergara. Etxe bat errentan hartu gura dut, Bergarako edozein zonatan. Reina. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. 699 66 33 63 edo 689 20 13 17.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 658 28 90 86.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Mutil batek logela hartu nahi du errentan. Telefonoa: 645 72 25 24.

Arrasate. Ferrerías kalean 135 metro koadroko etxea osatzeko kide bila. 4 logela, 2 komun, sukaldia hornitua eta saloia. Gasezko kalefakzioa. Hilabetean 187,50 euro (gehi gastuak). 658 70 01 05 edo 652 71 79 19.

Bergara. Gela bat ematen da errentan Bolun, sukaldia eraibiltzeko eskubidearekin. Deitu telefonoa honetara: 670 85 86 68.

Bergara. Mutil gazteak gela behar du. 664 07 78 03.

Debagoiena. Lanki institutuan dagoen irakasle brasildarrak logela edo etxebizitza behar du errentan azaroan zehar. Idatzi helbide honetara: sanpaia@furb.br

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea ematen da errentan Zerrajerka. Telefonoa: 635 73 27 74.

Oñati. Garajea ematen da errentan Kurtzebide kalean. Deitu telefono honetara: 651 70 92 57.

204. ERRENTAN HARTU

Arebabaleta. Garajea errentan hartu edo erosiko genduke Aretxabaletako Bedarretako San Miguel inguruan. Deitu telefono honetara: 656 72 38 41.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. 36,5 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Oso leku onean kokatua, Friskozuri plazan. Prezio interesgarria. Nekane. Deitu telefono honetara: 943 76 10 44.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERA
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarria bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE

Plazan dagoen taberna errentan ematen da. Prezio onean. 618 76 34 40

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Neska eskalduna behar da ume bi arratsalde zainzeko. 635 85 91 34.

Bergara. Emakume bat behar dut, etxean lan egiteko goizean. 615 75 46 17.

Bergara. Emakume eskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 688 80 27 21.

Debagoiena. Neska bat gertu etxeko lanak egiteko zein ume edota adindunak zainzeko. Egun osoz edo orduka. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

BERGARA

Hileta zerbizuetarako langilea behar da. CV-a aurkeztu martitzen-eguenak 09:30-11:30 Amilaga 39, Bergara

Esakoriatza. Eskola partikularrik emateko prest. LH eta DBHko 1. eta 2. mailak. Telefonoa: 679 86 74 23.

402. ESKAERA

Arrasate. Emakume eskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. 659 82 75 18.

Arrasate. Igeltsero lanak egingo nituzke. Baita nagusiak zaindu edo zerbizari lanak ere. Rolando. 679 23 10 44.

Arrasate. Emakume eskalduna eskaintzen da egunean bi orduz lan egiteko. Goizez nagusiak zainzeko edo bestela arratsaldean ume edo nagusiak zainzeko. Rosi. Deitu telefono haue-

tara: 943 77 16 01 edo 672 20 36 82.

Autobus eta kamioi gidari lanak egiteko gertu nago egubakoitz eta asteburuetan. 658 95 18 64.

Bergara. Emakume arduratsua garbitasun lanak egiteko gertu. Esperientzia dauka eta bergararra naiz. 686 11 24 66.

Bergara. Emakumea etxeko lanak egiteko prest dago. 943 53 40 01.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zainzeko. Orduka. 680 87 38 66.

Bergara. Haurren eta hirurgarren adineko zainza lanak zein garbiketa lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna eta arduratsua. 14:00etatik aurrera. Gladis Cantero. 618 12 07 44.

Bergara. Neska eskalduna gertu 15:00etatik aurrera umeak zaindu, etxeko lanak egin edo LHko eskola partikularrik emateko. 615 70 55 50.

Bergara. Neska gertu zaharrak zainzeko eta etxeko lanak egiteko. 646 28 55 02.

Bergara. Pertsona nagusiak zainzen esperientzia handia duen emakume bat prest dago asteburuetan edo gauetan lan egiteko. 606 64 16 09.

Debagoiena. 39 urteko gizona egun erdiz lan egiteko gertu. Iñaki. 608 49 89 93.

Debagoiena. Edozein lan mota egiteko gertu nago, goizez zein arratsaldean. Margarita. 688 68 13 63.

Debagoiena. Edozein lanetarako gertu dagoen mutila naiz. 685 70 76 25.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 615 72 15 17.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zainzeko. 663 65 77 51.

Debagoiena. Emakumea gertu goizetan garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zainzeko. Aste bukatetan ere lan egiteko prest nago. 699 09 46 26.

Debagoiena. Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zainzeko edo garbiketa lanak egiteko. 627 18 34 79.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zainzeko. Gauetan goizetan orduka. 697 93 73 32.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 637 21 97 04.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak zainzeko eta zerbizari edo garbiketa lanak egiteko. 661 06 07 23.

Debagoiena. Emakumea goize-

tan lan egiteko gertu. Edozein lan mota: garbitasunak edo zainza. 699 09 46 26.

Debagoiena. Eraikuntzan edo galdaketa enpresa batean lan egiteko nuke. 627 14 30 15.

Debagoiena. Etxeko edozein brikolaje edo konponketa egin-tzen ditut. Merke. 686 99 23 94.

Debagoiena. Geriatria ikasketak dituen emakumea nagusiak zainzeko gertu. Estefania. 659 12 42 25.

Debagoiena. Gizona gertu kamioilari jarduteko. Eraikuntzan eta galdaketa-laguntzaile ere lan egiteko nuke. Telefonoa: 659 80 07 25.

Debagoiena. Mutil bat gertu etxeko lanak egiteko zein umeak edo adindunak zainzeko. Egun osoz zein orduka. 679 58 41 92 edo 943 71 21 15.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu zerbizari lanak, atari garbiketarako edo bestelako lanak egiteko. 679 58 41 92.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Gidabaimena daukat. 697 66 79 37.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu garbitasun edo sukaldia lanak egiteko. Baita harategi edo arrandegirako ere. Manipulazioaile txartela daukat. 666 21 88 95.

Debagoiena. Neska gaztea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edo umeak zainzeko. 679 23 10 44.

Debagoiena. Neska gertu etxean bertan lo eginda nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 679 58 41 92.

Debagoiena. Zerbizaria gertu asteburuetan lan egiteko. 679 25 03 12.

403. BESTELAKOAK

Debagoiena. Esperientziadun pertsona eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta hirugarren adineko pertsonen zainzarako. Deitu telefono honetara: 650 17 74 87.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. DBHko eskolak ematen ditut: matematika, fisika, kimika. Deitu telefono honetara: 695 71 90 85.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrik ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea, aljebra... Arreta personalizatua. Deitu telefono honetara: 630 71 35 83.

Bergara. Ingeles irakasle eza-

guna berriro eskolak emateko gertu. Eskola laguntza edo azterketak gertatzeko. Bolu. Deitu telefono honetara: 616 12 56 29.

Ingelesa. Talde txikiak. Goizez edo arratsaldean. Kalitatea bermatuta. Arrasaten. Deitu telefono honetara: 635 75 50 36 edo 943 79 24 59.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Furgoneta. Mercedes Vito 112 CDI. Oso egoera onean. Beti garajejan. Itxitura zentralizatua, beira-igogailu elektrikoak, aire girotua, berokuntza estetikoa eta eserleku birakariak. 2000koa. Deitu telefono honetara: 622 27 24 32.

Renault Clio 1.9 RN autoa salgai. 1997koa. 1.500 euro. Deitu telefono honetara: 653 01 48 80.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Basurdeak salgai Orozkon. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

703. EMAN

Katakumea. Sei hilabeteko baserriko katakume emea opari. Deitu telefono honetara: 943 76 21 71.

Katakumeak oparitzen ditut. Zurixkak eta begi urdinekin. Deitu telefono honetara: 943 78 05 13.

8/ DENETARIK

801. SALDU

'Brain training' berri-berria salgai. Nintendo DSrako. Deitu telefono honetara: 617 13 17 51.

Mobil home-a salgai Santo Domingo de la Calzadako kanpenean. Deitu telefono honetara: 635 73 78 72.

Altzariak. Zuzendari bulegorako bigarren eskuko altzariak salgai. Deitu telefono honetara: 656 70 25 91.

Basalurra salgai Urkulu, Bolibar, Osintxu eta Antzuolan. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

Bikiendako aulkia saltzen dut. Oso ondo zainduta. Maxicosi eta eurirako plastiko eta guzti. Urdin iluna. 350 euro guztira. Deitu telefono honetara: 626 17 51 08.

Debagoiena. Emaztegai soineko saltzen dut. Egoera onean.

BERGARAKO UDALA

Bergarako Udala administrari eta administrari laguntzaile lan poltsa osatzera doa lehiaketa-oposizio bidez.

Lehiakideen baldintzak:

- 16 urte beteta izatea.
- Batxilerr titulua, FP II edo parekoa den titulua jabe izatea.
3. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.

Instantziak

Instantziak aurkezteko epea 2008ko urriaren 31n bukatuko da.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta www.bergara.net webgunean.

Bergara, 2008ko urriaren 17a.
ALKATEAK



BERGARAKO UDALA

42-44 neurrikoak. Handi edo txiki daitezke. 700 euro. Zapatatxak eta zeta txikiak. Deitu telefono honetara: 636 83 85 32.

Debagoiena. Motorren eta autoen gaineko aldiriak saltzen ditut. Asier. Deitu telefono honetara: 617 17 15 88.

Entziklopedia salgai. Auñamendiren 'Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco'. 30 liburua inguru. Prezio onean. Deitu telefono honetara: 686 20 03 31.

Game Boy. Bi Game Boy Advance SP berri-berriak salgai. Bakotza bere jokoekin. Zelda eta The Sims 2. Batek 25 euro eta biek 40. 679 74 00 61.

Gurpilak. Elurretarako gurpilak salgai. Berriak. 195x65 R16 neurrikoak. Hagunak (Ilantak) barne. 300 euro. Ana. 636 43 88 47.

Karabana. 6 lagunentzako karabana salgai, Etxarri Aranzako kanpenean instalatuta. Guztiz egokitutakoa: hozkailu, sukaldia, mikrohuin, telebista eta abarrek. 609 54 88 59.

Mahai obalutua salgai. Gerezi kolorekoak. 136x92 zentimetro, luzagarriekin. 180 euro, negoziagarri. Asier. 617 17 15 88.

Mendiako bizikleta. BH Coronas. Shimano Deore kanbioak. 24 abiadura. 285 euro. 943 79 59 34.

Mendiako bizikleta salgai. Trek Fuel 8. Suspentsio bikoitza. Egoera ezin hobean. XTR-XT osagarriekin. 1.500 euro. 626 61 82 66.

Mendiako bizikleta salgai. 699 euro. Berria. Estreinatzeak. Bizikleta azokan zegoena. Suspentsio bikoitza (Rock-Shox), Shimano XT, disko hidraulikoak. Magura. Deitu telefono honetara: 652 73 83 25.

Trialeko bi bizikleta saltzen dira. Monty markakoak. Ia berriak. Bakotzak 250 euro. Deitu telefono honetara: 943 79 54 21.

802. EROSI

Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan, aisialdirako. 669 17 09 51 edo 943 76 03 59.

806. GALDU

Erloja. Irailaren 29an, Uarkape inguruan, itsuendako esku-murrerako erlojuak galdu nuen. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Itziar. Deitu telefono honetara: 615 70 55 74.

Lepokoa. Olarteko ikastolarako bidean zilarrezko katea galdu nuen, bi domina zituela. Horietako domina bat berreskuratu gura nuke, besterik ez bada. Umetxo itxura du, izen bat zetik daukala. Mesedez, aurkitu baduzu deitu. 626 17 51 08.

ETXE AGENTZIAK

Jar ezazu hemen zure publizitatea
943 25 05 05 publi@goiena.com



DEBA GARAI A
INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Unibertsitateko eta goi mailako ikasleentzako bekak.** Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioa. 2008-2009 ikasturterako izaera orokorreko eta mugikortasun bekak. Epea: urriaren 31a.

LANA

> **Eski estazioetan lan egin nahi?** Gazte Informazio Bulegoetan eski estazioen lan deialdiak bildu ditugu. Argibide gehiago: www.gipuzkoangazte.info.

> **Administraria** 2 administrari laguntzaile, delineantea, euskaltegi-ko irakaslea, hodi-iturgina, Kultur Ateko laguntzailea, 2 kultur ekintzetako laguntzaile. Arrasateko Udalaren eskaintza publikoa. Epea: urriaren 20a.

> **Administrari laguntzailea** aldi baterako. Bergarako Udala. Epea: urriaren 25a.

> **Peoi lurperatzailea.** Eskoriatzako Udala. Deialdia, lurperatzaile bat kontratatuzeko. Epea: azaroaren 3a.

IKASTAROAK

> **Boluntariotzako oinarrizko ikastaroa.** Hezkide Eskola. Boluntario direnei edo izan nahi dutenei zuzenduta. Arrasaten. Azaroaren 10etik 18ra, 20 orduko ikastaroa. Epea: azaroaren 3a.

> **Harrera-pisuak.** Hezkide Eskola. Harrera-pisuetako hezkuntzako esku-hartzeari buruzko ikastaroa Donostian. Epea: urriaren 22a.

LEHIAKETAK

> **Teknoskopia.** Elhuyar Fundazioa. Elhuyar Fundazioaren Teknoskopia 2008 Ideia-Lehiaketa. Parte-hartzaileek blog bat sortu behar dute. Epea: urriaren 31a.

astea GOITBn

Astelehena, 20



> **'Goiena Magazine' kontu berriekin**
19:45

Larraitz Zeberriok zuzentzen eta aurkezten duen saioa egunero eskainiko dute Goiena Telebistan astelehenetik egubakoitzera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka.

13:45 Itsasoari begira.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Mugaz kanpo.

15:45 Ttipi ttapako erreportajeak.

16:15 28 Klip.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizidunak.

18:15 Eltze beroa.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bizidunak.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Blogtb.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Harmailatik.

22:15 Erreportajea.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Martitzena, 21



> **Josu Loroño kazetaria 'Ilunpean' saioan**
21:45

Josu Loroño ETBko kirol kazetari eta aurkezlea izandakoa izango da martitzenean Goiena Telebistan Iker Barandiaranekin berriketan.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Futbola

13:45 Ikusten.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Harmailatik.

15:45 Solaskide.

16:15 Itsasora begira.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak: Futbola.

17:45 ttipi Ttapako erreportajea.

18:15 Harmailatik.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bizidunak.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Danbaka.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Ilunpean.

22:30 Mugaz kanpo.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Eguaztena, 22



> **Amuska emakume elkarte 'Zaharrak berri'-n**
20:30

Oihana Elortzak aurkezten duen *Zaharrak berri* saioan Amuska emakume elkarte eta Bergarako erretiratuen etxe-ko eskulanak.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka.

13:45 Ikusmira.

14:15 Gure saltsan.

14:45 Berriak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Blogtb.

16:15 28 Klip

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizidunak

17:45 Solaskide.

18:15 Ur eta lur.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazkiak: Muka Muka

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Zaharrak berri.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Erreportajea.

22:30 Perretxikoen mundua.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Eguena, 23



> **Danbaka lehiaketa ikusgai Goiena Telebistan**
20:30

Danbaka lehiaketako kontzertuak ikusteko aukera egongo da martitzen eta eguenetan Goiena Telebistan. Egun bakoitzean talde bat ikusi ahalko da.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Zaharrak berri.

13:45 Marrazki bizidunak.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Ikusmira.

15:45 Mugaz Kanpo.

16:15 Perretxikoen mundua.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizidunak.

18:00 Erreportajea.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bizidunak.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Danbaka.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Berriak.

22:45 Ttipi ttapako erreportajea.

23:15 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 24



> **'Katagorri' marrazki bizidunak GOITBn**
14:45

Katagorri marrazki bizidunak eskaintzen hasi dira Goiena Telebistan. Horrekin, umeendako eskaintza zabaldu gura izan du GOITBk.

13:15 Emisio hasiera.

13:15 Marrazki bizidunak.

13:45 Ur eta lur.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Berriak.

16:15 Ikusten.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizidunak.

18:00 Ilunpean.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bizidunak.

19:45 Magazinea.

20:30 Gure Saltsan.

21:00 Magazinea.

21:45 Solaskide.

22:15 Berriak.

23:45 Magazinea

00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> **'Ohean' antzezlan eta The Maharajas eta Los Cretinos**
10:30

Maskarada taldearen *Ohean* antzezlan eta The Maharajas talde suediarra eta Arrasateko Los Cretinos ikusteko aukera eskainiko du asteon Arrasate Irratian; eskuratu gura badituzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Ilunpean Teknoberriak Igo Euriborrera! Kantaka Zaharrak Berri Astearren errepasoa Zozketak Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))
11:55 Arrasateko albistegia, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

asteko hitzorduak

Erakusketa



ELGETA
> **Bi arrasatear gaztek egindako 'Libelandula' erakusketa, Espaloian**
Maite del Rey eta Maider Zubillagak prestatutako *Libelandula* delako erakusketa dago ikusgai urri osoan Espaloia antzokian. Zubillagaren artelanek eta Del Reyren poemek osatzen dute. Argazkian, bi egileok.

Musika



ARRASATE
> **The Maharajas garage-rock taldeak diskoa aurkeztuko du 3.60an**
The Maharajas taldeak kontzertua egingo du urriaren 24ko gauean, *In Pure Spite* (Bloody Hotsak) diskoa aurkezteko. Los Cretinos talde arrasatearrak ere joko du gau horretan. 3.60 aretoan izango da kontzertua.

Zinema



OÑATI
> **'Asesinato justo' filma emango dute gaur, astelehena, kultur etxean**
Asesinato justo delako thrillerra emango dute gaur, astelehena, Oñatiko kultur etxearetoan, 19:30ean. Robert De Niro eta Al Pacino dira aktore nagusiak, eta bi polizia ikertzaileen rola ematen dituzte.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

kuxkuxeroa



Oihana Elortza

Behin joan nintzen azokara


Txakurra eta txistua erosi zituen abeslariak azokan. Ni ere egon nintzen zapatuan azokan, Bedelkarrak antolatu duenean, baina ez nuen ezer erosi. Umeendako leotardoak erosten ikusi nuen emakume bat **Iratxo** mertzerian eta **Kanela** dekorazio dendan kolore biziko erloju handi batzuei begira ikusi nuen neska bat. Inbidia ere eman zidan, baina nik ere beste askok egin zutena pentsatu nuen: "Pasako naiz dendatik". **Anabel Dominguez** lagunak ere argazki kamara eta koaderno zeramatzen

Laranjak erostea ahaztu zitzaidan eta koadrilakoek ederki egin zidaten enkargua

eskuetan; erosteta poltsarik ez. Okerrena da azoka kontuaz ibili arren, laranjak erostea ahaztu egin zitzaidala. Koadrilakoekin gogoratu nintzen orduan eta ederki egin zidaten enkargua: **Iñaki Mujika**, **Nagore Iñurategi** eta **Amaia Alberdi**, hiruren artean erosi zizkidaten, eta amaginarrebaren etxeraino ekarri, gainera. Oraingoan ere, eskerrik asko, lagunak.

Azokatik bueltatu nintzeanean eman zidan albiste txarra **Arritxu Barruso** lankideak: lan istripua gertatu zela Oñatin eta langile bat helikopteroan eraman zutela Gurutzetara. "Berriz?" pentsatu nuen. Iluntzea heldu orduko jakin nuen **Pintxe** zela hildakoa, oñatiarra, ezaguna. Etxera erostetak egin gabe joatea, huskeria.


zorion agurrak



ONATI
Ekhi Galdos
Urriaren 13an. Berandu bada be zorionak e!! Aber pasta horreik... Klaseko lagunen partez!



ESKORIATZA
Bittor Barandiaran
Urriaren 17an. Zorionak eta patxo handi bat txapel-dun!!



ESKORIATZA
Iker Nevado
Urriaren 17an. Zorionak eta patxo handi bat familiako-en partez!!



ONATI
Unai Izura Astigarraga
Urriaren 18an, 4 urte. Zorionak gure printze-ari eta patxo pila bat etxeko partetik. Ondo pasa zure urtebetetzeko parrandatxoan.



ARRASATE
Peru Arrese
Urriaren 15ean. Zorionak Peru eta Mari Tere! Patxo pillua Danimarkatik!!



ARRASATE
Markel Errasti Altube
Urriaren 17an. Zorionak eta patxo pila pila bat, familiako guztien partetik!



ONATI
Unax Arabaolaza Lizarralde
Urriaren 19an. Zorionak Unax!! Patxo handi bat etxeko partetik. Ondo pasa zure urtebetetze eguna.




ARRASATE
Zorione Aperribai
Urriaren 16an. Zorionak txo!! Kuadrillakuen partetik, egun on ona pasa!!



ARRASATE
Xabier Mondragon eta Gorka Zubizarreta
Urriaren 17an. Zorionak lagun danon partetik!



ARETXABALETA
Oihana Arietaleanizbeaskoa
Urriaren 19an. Zorionak morena!! Kuadrillako gaztiarena izen arren heldu da zure eguna! Patxo haundi haundi bat eta ondo pasau zure eguna!!



BERGARA
Manex Alberdi
Urriaren 16an. Segi holako jator eta alai. Zorionak Aranzadi ikastolako 4.mailako partez.



ARAMAIO
Aizpea Ajuriagerra
Urriaren 18an. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik. Batez ere Aitorren, alaba Amaiurren eta Uxueren partetik!



ONATI
Malen Osinaga
Urriaren 20an. Zorionak printzesa! Muxu eta besarkada haundi bat etxeko partez.



ARRASATE
Jon Urkia
Urriaren 16an. Zorionak mutil! Sararen eta etxeko partez.



BERGARA
Iñaki Olabarria
Urriaren 18an. Zorionak etxeko partetik. Batez ere Malen, Iker eta Alazne.



BERGARA
Andere Larrañaga
Urriaren 20an. Zorionak etxeko partetik.



ARRASATE
Urki Garitaonandia Uriarte
Urriaren 21ean. Zorionak mutiko haundia etxeko partez zure 3.urtebetetzean. Bereziki Ixone eta Hodei. Muxus.




BERGARA
Joseba Unamuno
Urriaren 21ean. Zorionak familiako partetik eta bereziki Olaiaren.




BERGARA
Alazne Olabarria
Urriaren 21ean. Zorionak etxeko partetik. Batez ere Malen, Iker eta Alazne.



ARRASATE
Irati Lasa Uriarte
Urriaren 21ean 6 urte. Zorionak eta patxo handi eta potolo bat zure etxeko partetik.



ARRASATE
Txomin Arriaran Lagunilla
Urriaren 21ean, 7 urte. Zorionak, poltxoi! Patxo handi handi bat Oxel, amatxo eta aitatxoren partetik.




BERGARA
Malen Olañeta
Urriaren 21ean. Zorionak etxeko partetik. Batez ere Malen, Iker eta Alazne.



ARRASATE
Alazne Sandoval Guerra
Urriaren 21ean. Zorionak eta patxo handi bat aitatxo, amatxo eta ahizpa Eiderren partetik!




ARRASATE
Julen eta Eider Abarrategi Garai
Eiderrek urriaren 9an 4 urte eta Julenek urriaren 22an 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat bixei familiako danon partetik!



ARRASATE
Julen Gomez Ibaibarriaga
Urriaren 23an. Aupa mutiko handi! Zorionak etxeko guztien partetik eta patxo handi-handi bat.



ESKORIATZA
Ekaitz Oñate
Urriaren 23an, 9 urte. Zorionak familiako partetik.



ARRASATE
Nora Otxandiano
Urriaren 24an. Zorionak eta patxo pilo-pilo bat!!! Etxekoak.



ONATI
Unai Gomez Perosterena
Urriaren 26an. Zorionak xagutxo! Aitatxo, amatxo eta Aitor. Patxo haundi bat.

ESKER ONA

Maria del Carmen Albizua Barañano

Cirilo Mondragonen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko urriaren 15ean.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko urriaren 20an.

OROIGARRIA

Mikel Celaya Yarza

'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

Zure umorea beti izango dugu gogoan.



Zure lagunak.
Oñatin, 2008ko urriaren 20an.

OROIGARRIA

Mikel Celaya Yarza

'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

Alaitasuna zendun hitzetik hortzera poza banatzeko gure bihotzera

Mikel gure ispilu beti izan zera zure antzeko izaten saiatuko gara

Atxandere. Gero arte, *Pintxe*

Koadrilakoak.
Oñatin, 2008ko urriaren 20an.

asteburuko albuma

Pintxo lehiaketa Elgetan. Eguraldia lagun, giro bikaina izan zen domekan Elgetan. Pintxo lehiaketan herriko zazpi tabernek hartu zuten parte eta epaimahaiak ez zuen lan erraza izan. Azkenean Ostatu jatetxeko Arantxa Aretxagak eraman zuen lehensaria. Elgetako hotela eta Bolatoki taberna sailkatu ziren jarraian. Perretxiko ibilaldia eta erakustaldia ere egin zuten Elgetan. Antolatzaileek balorazio positiboa egin zuten.



Paulo Letona abadea omendu dute. Eskoriatzarrak 50 urte egin ditu abade eta Eskoriatza eta Aretxabaletako parrokiak eta elizateetakoek omenaldia egin zioten domekan. Aretxabaletan meza izan zuten eta Eskoriatzako Mendigoia hotelean bazkaria. 80 bat lagun elkartu ziren.



Auto klasikoak Antzuolan. Beasaingo auto klasikoaren kontzentrazioa joan ziren autoek geldialdia egin zuten Antzuolan domeka eguerdian. Herritar asko joan ziren modelo eta urte ezberdinetako auto zaharrak ikustera.



Juan Luis Larrea Arrasaten. Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek Mondraren partidua ikusi zuen domekan Mojategin. Partidura joan aurretik Mondrako zuzendaritza taldeko kideekin bazkaldu zuen Juan Luis Larreak.

jaiotakoak



Ander Guridi Ugarte
Oñati > 3,350 kilo. Urriaren 11n. Gurasoak: Nagore (Oñati) eta Iñaki (Oñati). Argazkian, Ander jaioberria, amarekin.



Eneko Moiu Bikuña
Oñati > 3,770 kilo. Urriaren 14an. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Borja (Oñati). Argazkian, Eneko jaioberria, gurasoekin.



Eire Corredoira Rodriguez
Ermua > 3,170 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Esther (Ermua) eta Hernan (Ermua). Argazkian, Eire jaioberria, amarekin.



Nahiare Carrasco Martinez
Arrasate > 4,080 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Marian (Eskoriatza) eta Juanjo (Eskoriatza). Argazkian, Nahiare jaioberria, amarekin.



Noa Bellido Nuñez
Arrasate > 2,420 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Iratxe (Bilbo) eta Eneko (Arrasate). Argazkian, Noa jaioberria, amarekin.



Jon Marquez Palacios
Oñati > 3,510 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Sara (Oñati) eta Javi (Oñati). Argazkian, Jon jaioberria, sehaskan lo.



Oier Laskurain Gabilondo
Osintxu > 3,600 kilo. Urriaren 17an. Gurasoak: Eider (Osintxu) eta Etor (Osintxu). Argazkian, Oier jaioberria, sehaskan lo.



Iraitz Larrañaga Mendarozketa
Aretxabaleta > 2,540 kilo. Urriaren 16an. Gurasoak: Naiara (Aretxabaleta) eta Xabier (Aretxabaleta). Argazkian, Iraitz jaioberria, sehaskan lo.



Haizea De Tena Gandarias
Arrasate > 2,580 kilo. Urriaren 15ean. Gurasoak: Monika (Arrasate) eta Diego Antonio (Arrasate). Argazkian, Haizea jaioberria, amarekin.

BABESLEA



Lazarraga 4 OIATI 943 08 23 32

OROIGARRIA

Mikel Celaya Yarza
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Bihotz bihotzez



Kalegoienako zure bizilagunak. Oñatin, 2008ko urriaren 20an.

OROIGARRIA

Mikel Celaya Yarza
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

'Pintxe', zurekin pasatutako egun goxoak ez ditugu inoiz ahaztuko. Muxu haundi bat.



Otamendiko lagunak. Oñatin, 2008ko urriaren 20an.

OROIGARRIA

Mikel Celaya Yarza
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

Betira arte, lankide.



HJ Garay-ko lankideak. Oñatin, 2008ko urriaren 20an.

Onintza Enbeita > Bertsolaria

"Flamenkoa entzutea eskandalua zen etxean"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Onintza Enbeita muxikarra *Berriako Matra* gehigarriko arduraduna izan da, baina une honetan Labayrun bizkaierako irakasle eta Muxikan zinegotzi dabil. Horrez gain, Bizkaiko Bertso Txapelketa prestatzen dihardu.

Familian daukazu tradizioa-gatik zure lehenengo errebel-dia ekintza izan zitekeen bertsoei bizkarra ematea. Pentsatu al duzu inoiz?

Bai, inoiz bai, baina benebenetan ez. Batzutan nire buruari galdetzen diot nire bizitza zer izango litzatekeen bertso barik. Bestelako gauza errebeldeak egin ditut: adibidez, etxera flamenko diskoak eramaten hasi nintzenan, hura eskandalua!

Bestalde, Enbeitatarren artean halako markak egonda, hori zelanbaiteko presioa izango da, ezta?

Presioa baino, jendeak konparaketak egiten ditu. Beti bizi zara harri horrekin lepoan, baina heltzen da momentu bat Enbeita aurretik Onintza zarela, eta

zure estilo propioa daukazula. Azkenean, jendeak hori bereizten ikasten du.

Eramaten dituzu egunero taroteko kartak aldean?

Gaur ez ditut ekarri. Erabiltzen ditut, mundu esoterikoaren gaineko zaletasuna daukat. Lagunei irakurtzen dizkiet kartak.

Eta galdetu diezu kartei Bizkaiko Txapelketan zer gertatuko den?

(Barre) Ez, horretarako ez. Emozioa galduko luke, eta gura-

TEST-A

Herria: Muxika. **Adina:** 29 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza eta Graduondokoa. **Zaletasunak:** Bertsoak, flamenkoa eta parranda. **Zer amets bete duzu?** Euskaldunan, finalean, bertsotan egitea. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Txapela janztea, jakina. **Zenbat ume izango zenituzke?** Hiru, baina oso ondo bizi naiz eta martxa honetan bigo edukiko ditut. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Australiara oso gustura joango nintzateke.

go dut abenduaren 20ra arte tentsioari eustea.

Muxikan alkategai aurkeztu zinen. Alkate bazina, zer aldatu zenuke?

Guztia. Muxika oso herri karratua da, baserri girokoa. Gazteek han bizimodua egiteko gauza asko behar dira: kultura ekintzak, etxebizitzaren aukera berriak eta alaitasuna.

Baduzu areto dantzetan jarduteko adinik?

(Barre) Ez dago adinik, nahiz eta jende gehiena nagusia den. Oso polita da. Pena bakarra da Euskal Herrian oso gaitza dela dantza ondo egiten duten mutiak aurkitzea...

Zer daukate mariatxiek?

(Barre) Ez dakit, baina mundialak dira! Batzuek diote hitz matxistak dituztela, baina neuk ederto pasatzen dut entzuten eta abesten. Mexikarren bizitza kulebroi bat da eta hitz horiek oso ondo islatzen dute. Musika horrek nire barruko *hortera* kanpora ateratzen du.



ZIBURUAK Oso estresatuta dagoenean ziburuetan ibiltzen da Onintza. I.BARANDIARAN

ai, ene!



Komuna beti eskura

Larritasun handiak pasatzen ditugu askotan komun bila. Maleta berezi honekin bukatu dira sufrimendu horiek. Gauden tokian gaudela, komuna beti eskura izango dugu. Nora joango ote dira gure hondakinak gero?

<http://www.taringa.net>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Zutaz oroitu

Orain urtebete gure parrokiako ganbaran aurkitu nuen apaiz txiki baten argazkia. Argazkilaria ume irrifarrez begiratzen zion apaiz agurea zen, sotana jantzitako apaiza, buruan teila beltz handi bat zuena. Pedro Garitano apaizaren irrifar txiki eta sakona zen hura. Bergarako hainbat jende, fededun nahiz eliztar ez direnak etengabe hitz egin didate berari buruz eta norbaitek urteak betetzen zituenean nola etxera deitzen zuen zoriorduz. Haur eta gazteek banan-banan jasotzen omen zuten bere deia.

Orduntxe eta oraintxe bertan jarri naiz pentsatzen zein garrantzitsua den norbait zutaz oroitzea eta zure ondoan, zurekin dagoela jakitea. Bere deia edota bere




agurra jasotzen duzunean tristurak une batez alde egiten dizu, kalera beste modu batera irteten zara eta gizakia beti sentitzen duzu hurbil eta senide. Norbaitek zure izena eta zure urtebetetze eguna nonbaiten duela idatzirik, zuk tokiren bat duzula beste horren bizitzan. Ez zarela zenbaki hutsa, norbait baizik.

Ariketa hau eguna joan eta eguna etorri egiten omen zuen sotana haren azpian halako bihotz ona gorderik zuen Don Pedrok. Ariketa hau edota halakoak berreskuratu behar genituzke gizakion arteko harremana fintzeko.

Don Pedrok huraxe egiten zuen eta, beharbada, zutaz oroitu zen. Jarraituko al dugu kate hura?

eguraldia



MAXIMOA

+25

MINIMOA

+13

Eguraldi ederrarekin hasiko dugu astea. Egun osoz eguzkia izango da eta hego haizeari esker tenperaturek gora egingo dute.

www.euskalmet.net

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

